



ARGIA

ODOL ISURKETA ASKEA NOLA KUDEATU HILEKOA KONPRESA ETA KOPARIK GABE

» LAPURDIKO URRE MEATEGI PROIEKTUA: 11 HERRI ETA 500 ETXALDE ARRISKUAN

» TRUMPEN AHOLKULARI NAGUSIAK GERRA NAHI DU AEB BIZIBERRITZEKO

» PELLO LIZARRALDE: "INTERPRETAZIORAKO BIDEA EMATEN DUEN NOBELA INTERESATZEN ZAIT"

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Steve Bannon, Trumpen estrategia gerrazalea

IRITZIAK

- 17 Asier Blas
- 18 Bixente Serrano Izko
- 19 Zigor Etxebarua Edu Zelaia
- 20 Bea Salaberri



Lapurdioko hamaika herritan urrea bilatzeko proiektuari aurre egin diote inguruko herritarrek. (ARGAZKIA: JEAN LOUIS PIQUET)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: ELIZABETH MACKLIN
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Fito Jimenez: "Ura urtegietan bilduz gero, haren kontrola galtzen duzu" / Reyes Ilintxeta
- 22 | Hilekoa: Sentitu jariora eta isuri nahieran / Itziar Ugarte Irizar
- 28 | Sudmineren meategi proiektua: Urre goseari oldartu zaizkio herritarrek / Jenofa Berhokoirigoin
- 32 | Buruko gaitzak, osasun arlotik haragoko esku-hartzea behar duen arazoa / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 34 | *Euskal hedabideek* ituna lortzeko bidea ireki dute / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Pello Lizarralde: "Ez naiz fio oso liburu desberdinak idazten dituzten idazleekin" / Kepa Matxain
- 46 | Arte iruzkina: Amable Arias / Xabier Gantzarain
- 47 | Mundu bat, Marijane / Itxaro Borda

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AUERRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaitza Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Ane Eslava, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Itsaso Zubiria, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Lukas Barandiaran, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco. **Produktzioa:** Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre. **Administrazioa:** Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza. **Web garapena:** Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

ARGIA KIDETZA:

Kidetzat harpidetzari lotuta egon beharrean, ARGIA komunikazio proiektua indartzera dago lotuta. Partikular eta kolektiboek, ahal duten eta egokitzat duten ekarpen ekonomikoak egin, ARGIA argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean proiektua indartzeko.

Erakunde publikoen kasuan, ohiko sistemari eusten diogu. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (43 € urtean).



PANORAMA

Olibondo eta lurraren defentsan

Zisjordaniako palestinarrei bortxaz lapurtutako lurretan 6.000 etxebizitza gehiago eraikitzeari ekin dio Israelgo gobernuak. Erabaki horren aurretik, Israelgo legeak berak ilegaltzat jotzen zituen 53 kolonia legezko bilakarazi dituzte. Bi adibide hauek agerian utzi dute Netanyahuaren gobernuak berriz ere azeleragailua zapaldu duela Palestinako okupazioa azkartzeko. Trumpen etorrerak sionismoari bidea erraztu dio nazioarteko legedia eta giza eskubideak urratzen jarraitzeko. Nazioarteko komunitatearen konplizitateak eta Palestinako Aginte Nazionalaren pasibitateak, berriz behartu ditu palestinarrek beren lurra eta bizibidea defendatzeko Israelgo hondeamakinen aurrean jartzera.

Argazkia: Haidi Motola (Active Stills kolektiboa) · Testua: Axier Lopez





“Eta parlamentuak fabrikak bezala Bangladeshera deslokalizatuko bagenitu?”

François Rufin, *Merci Patron!* dokumentalaren zuzendaria.



“Ez dago munduan gauza okerragorik, inork ez ikustea baino”

Chrysalis elkarteak Beate Sever (*Hiruka*).



“Gustatuko litzaiguke tresna praktiko zehatzak eskaintzen hasia herri mugimenduari”

EHUko ikasle mugimenduko kidea (argia.eus).



“Lehian aritu beharrean, gakoa da ulertzea prekaritate mota guztiak sistemak sortzen dituela”

Assumpta Ayerdi, Emaus (argia.eus).



“Libre eta pobre naizenean sortzen ditut lanik estimatuenak”

Oskar Alegria, zinemagilea (*Berria*).



EKINKLIK.ORG

Euskarazko haur eskolen aurkako sententziari helegitea

Euskalerria Irratia
@fm914

Iruñeko haur eskolen euskarazko eskaintzak bertan behera uzteko agindu du Iruñeko Administrazio Auzietarako 2. epaitegiak, guraso batzuek aurkeztutako helegitea aintzat hartuz, baina Iruñeko Udalak helegitea aurkeztuko du. Haur eskolak ez direla udal eskumena dio sententziak, baizik eta Nafarroako Gobernuarena. Joseba Asiron alkateak, aldiz, azpimarratu du unitate aldaketa edota izendapen aldaketa egotekotan baino ez duela behar Udalak Gobernuaren baimena, eta kasu honetan, halakorik ez dela izan. “Sententziak dio aldatu dugula gure eskaintza eta hori ez da egia”, esan du Asironek. 0 eta 3 urte arteko zerbitzua

derrigorrezkoa ez dela gogorarazi du Udalak eta nahi duelako eskaintzen duela, “borondatez”. Hala, sententziak “udal autonomia printzipioa” urratzen duelakoan dago alkatea: “Teorikoki behintzat –haur eskola zerbitzua– ez emateko aukera ere badugu”.

“Lasaitasuna”. Hori da familiei alkateak helarazi nahi izan dien mezua, heldu den urteko matrikulan aldaketarik ez dela egon esanez eta oroitaraziz sententzia ez dela betearazlea errekurtsioa aurkeztekotan. “Seme alaben eskubideak bermatuta daude; berdin jarraituko dute”.

Euskalgintza, kalera

Mobilizazioara deitu du Iruñeko euskalgintzak eta “agerraldi masiboa” egin dute Udaletxe plazan.

“Bizkaiko euskaldun guztientzat ari den erakundeak lehentasuna eman behar lioke euskara batuari”

EIZIE EUSKAL ITZULTZAILE, ZUZENTZAILE ETA INTERPRETEEN ELKARTEA

Bizkaiko Batzar Nagusietako aktak bizkaieraz jasotzeko baldintzaz oharra kaleratu du EIZIEk: “Ez dago dudarik Bizkaiko Batzar Nagusiak administrazio orokorraren mailan daudela. Ez dago zalan-tzan jartzerik bizkaiera aintzat hartu beharrekoa denik, jakina, baina Bizkaiko euskaldun guztientzat ari den erakunde batek lehentasuna eman behar lioke euskara batuari, Akademiak onetsitako estandarri. Besterik da euskara batu horrek zuztar luzeak eduki behar dituela bizkai-euskarari.” **2017-02-21**







GURE ESKU DAGO

Mas eta Ibarretxeren artean, Elorrieta falta zen Kursaalean

Xabier Letona
@xletona

Artur Mas eta Juan Jose Ibarretxe. Bi lehen-dakari, bi ibilbide, amets bat: herrien erabaki eskubidea. Kataluniakoa nola doan azaldu zuen Masek, hemengorako bere klabeak Ibarretxek. Eta Kursaaletan Joxe Elorrietaren izpiritua falta zen.

Iaz dozenaka herritan egin ziren kontsulta soberanistak Euskal Herrian eta aurretik ere 60tik gora herritan egingo dira. Kataluniako Arenys de Munten 2009an egin zen lehena. "Hura izan zen egungoaren hasiera", erantzun zion Masek entzule baten galderari. Horra ekitaldiaren klabe bat: aurretik Gure Esku Dagok antolatutako kontsultak. GEDEk eta Ibarretxek gidatzen duen Agirre Lehendakari Centerrek antolatutako zuten klasea. Bi lehendakari ohi 1.800 pertsonen jarrera beroaren aurrean, Kataluniako prozesua zertan den eta erabaki eskubidearen nondik norakoak azaltzeko prest. Bazen morborik. "Ekitaldi akademikoa da hau", zehaztu zuen hainbatetan Ibarretxek, baina ekitaldi akademikotik entzuleek ez dute irakasleetako bat independentzia oihuekin hartzen honek hitz egin behar duenean, Masekin gertatu bezala. Ekitaldi akademikotik batean, xehetasun gehiago jarri beharko zukeen Ibarretxek Estatutu Berriaren proiektuaren porrotaren nondik norakoez eta haren argi-ilunez; ikasleriak hausnar ahal dezan egoera hartaz eta euskal soberanismoak berriz harri bertsuekin estropezu egin ez dezan. Eraba-

ki eskubidea aurrera ateratzeko, instituzio eta herritarrek bidea elkarrekin egin behar dutela aipatu zuen Ibarretxek; Ibarretxe Planaren garaian horrek zergatik huts egin zuen ere gustura entzungo genukeen.

Zein urrun den Everest

Everesteko metafora erabili zuen Ibarretxek Euskal Herriko eta Kataluniako igoera saioak konparatzeko. Joan den hamarkadan berak bultzatutako estatutuaren erreformarekin II. kanpamentura iritsi zirela eta orain katalanek lortu dutela III. kanpamentura heltzea. Munduan estatu berriak sortzea posible dela azpimarratu zuen. Nola heldu gailurrera? Gizarte soberanista eta instituzioak elkarrekin joanda.

Euskal burujabetzaren dilema

Aho zapore ona utzi zion ekitaldiak bertaratu zen entzule soberanistari, baina euskal soberanismoak ez du garbi zein bide jorratu behar duen. Asko sintetizatu eta sinplifikatu, EAJren ikuspegi ofizialak ez du Kataluniarekin ezer jakin nahi, Gernikako Estatutuaren erreformaz PPrekin aldeko akordioa lotu nahi du eta kito. Nahikoa du kudeaketarekin eta Espainiako herritarrak baino hobeto egotearekin. EH Bilduk ez du estrategia argirik, EAJren bueltan ari da batetik, hura gabe jai dagoela sinetsita, baina haren enroka nola gainditu asmatu ezinik. Bien korronteen erdian ari da GED bere kontsultekin, kolore anitzeko abertzaleak bilduz, baina oraingoz Kataluniako ANCren botere faktiko izaeratik urrun.

EKONOMIAREN TALAIAN

Preskribatu ezin duen estatu sarraskia



Juan Mari Arregi

41 urte bete dira Gasteizen polizia frankistak tirokatuta langileak sarraskitu zituztela grebalariei asanblada batean. 41 urte bete inpunitate, oraindik ez baitira erantzukizun penal eta politikoak argitu bost lagun hil eta hamarnaka zauritu zituen krimen haren inguruan. Halako sarraski batek ez luke inoiz preskribatu behar, baina hala ere judizialki artxibaturik gera daiteke.

Langileek eta Euskal Herriko mugimendu sozialek, hala nola senide eta lagunek, ez dute injustizia hori onartuko. Hain zuzen, Frankismoaren krimenen kontrako euskal plataformak salatu du Gasteizko epaitegi batek 1976ko martxoaren 3ko gertaerak preskribatutzat eman dituela. Martxoaren 2an Arabako hiriburuaren epaitegi aurrean elkarretaratuko dira "justizia" aldarrikatzeko.

Ebazpen judizialaren arabera, masakre hura ezin omen da tipifikatu gizateriaren kontrako delitu gisa. Frankismoaren krimenen kontrako plataformaren ustez, baina, argudio hori nazioarteko legalitatearen kontrako da. Jokabide judizial horrek erakusten du Espainiako Gobernuaren eta justiziaren borondate eza nazioarteko legalitatea errespetatzeko. Frankismoan krimenak egin zituzten inpunitatea betierekotu nahi dute. Langile eta herritarren oroimean iltzatuta daude Fraga, Martin Villa eta beste izen batzuk.

Euskal erakundeek, sindikatuek, alderdi politikoek eta mugimendu sozialek indarrak batu beharko lituzkete inpunitate hori luzatzea eragozteko. 1976ko gertaerak badiu arduradun politiko eta pertsonalak. Eta Espainiako Gobernuak badaki hori. Gasteizen izandako estatu-sarraskiak ezin du preskribatu, eta justiziak ez luke krimena estali behar.



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Aske geratu da Arantza Zulueta abokatua

BILBO. Hiru urtez isolamendu egoeran espetxeratuta egon ostean, Espainiako Auzitegi Nazionalak 20.000 euroko fidantzapean aske utzi du Arantza Zulueta abokatua. ETaren menpeko Koordinazio Taldeko kide izatea leporatuta epaituko dute. Bilbon egin dioten omenaldian, “denak etxera ekarri arte” borrokan jarraitzeko deia egin du abokatuak. Bestalde, Espainiako Barne Ministerioak adierazi du gaixotasun sendaezinak dituzten presoek baldintzapeko askatasuna lortuko dutela soilik “oso epe laburrean” hiltzear badira edo damutzen badira.

Inauterietan animalia hilak erabiltzeagatik polemika

Euskalerrria Irratia / Erran

@fm914 / @erran_eus

Ituren eta Zubietako inauterietan gertatutakoa ikertzen ari da Foruzaingoa, sare sozialen bidez zabaldutako irudiek hautsak hauspotu baitituzte, hainbat lagun ikusten dira-eta animalia hilak eta haien tripakiak erakusten.

Ikerketa eta polemika

Legeak animalien “erakustaldi publikoa” debekatzen du eta horregatik ikerketa. Bestalde, Mari Jose Be-reau Iturengo alkateak mehatxuak eta irainak salatu ditu. “Konpromisoa” ere azaldu du, animalien erakustaldiak amaitzeko.

Itxura faltsua

Iturengo eta Zubietako udalek adierazi dute “animalien babesari buruz indarrean da- goen araudia betetzea zainduko” dutela eta kritikatu dute “irudien erabilera interesatu eta manipulatuarekin, inauterien itxura faltsua” eman dela.

Protagonistak

“Inauteria da kultur es- presio herrikoi bat eta bi dira haren benetako protagonistak: joal- dunak eta moztarrok. Iturengo eta Zubietako udalek ez dute ospaki- zunaren antolakuntzan nahiz finantzaketan parte hartzen”, dio al- kateen oharrak.

LAN PREKARIOA



45

egunez enplegu eta soldata gabe utzi du langile bat Eroskiren arreta zerbitzua eskaintzen duen bZero telemarketing enpresak, lan-baldintza prekarioak Twitterrez salatu zituelako.

787

euro kobratzen ditu hilabeteen langile honek, astean 33 ordu lan egiteagatik.



REZOLA KUTSATZAILE

Donostiako lau auzo elkartek alegazioa aurkeztu diote Eusko Jaurlaritzak Rezola porlan-fabrikari hondakinak erretzeko emandako Ingurumen Baimen Bateratuaren aldaketari. NOx, SO2, NH3 kutsagaien emisio mailak apalagoak izatea eskatu dute, besteak beste.



LEHEN 3D FILMA EUSKAL HERRIAZ

1936an grabatu zen arren, orain arte ez genuen ezagutzen Euskal Herriari buruzko lehen 3D filma. René Le Hennaf zuzendariaren *Euskadi* lana aste honetan aurkeztu dute EHUK eta Loraldiak.



PEDERASTEI ERRUKIA

Sexu gehiegikeriak egiten dituzten apaizekin “zero tolerantzia” agindu izan du Aita Santuak, baina errukiaren izenean hainbat elizgizon pederasten zigorra apaldu du, Fedearen Doktrinarako Kongregazioaren gomendioei entzungor.

Ezagutu Steve Bannon, Trumpen estrategia eraiki duen gerrazalea



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Donald Trump lehendakari berriak AEBak autokrazia bihurtu nahi ote ditu? Itxura hori eman du agintean daramatzan aste gutxietan. Orain arteko haren hitz eta erabakiak oso hurbiletik segitzen dituztenek garrantzia berezia eman diete Trumpek estrategia buru duen Steve Bannonek urteetan predikatutakoei. "Amerikako gizonik arriskutsuena" bataiatu dute.



2013ko azaroan Ronald Radosh historialariak bisitatu zuen Steve Bannon milioi-duna Capiton Hilleko bere etxean. Garai hartan Bannon zen *Beitbart* webgune eskuin muturrekoaren burua, eta hasi zitzaion bisitariari: "Ni leninista naiz". Historialaria, harrituta. "Leninek -jarraitu zuen- estatua suntsitu nahi zuen eta horixe da nire helburua ere, dena suntsitu, gaur eguneko establishment osoa". Esan nahi zuen, Alderdi Demokrata, hedabideak eta baita Alderdi Errepublikarra bera ere.

Radoshek elkarriketa hura *The Daily Beast* hedabidean kontatu zuenean, Bannon oso hurbiletik ezagutzen zuten zenbait jende xehetasun gehiago eman zituzten gizonaz. Luzaz Bannonen inguruan ibilitako Julia Jones zinema gidoilariak esaterako: "Steve oso militarista da, gerraz maiteminduta dago, kasik poesia balitz bezala (...) Grezia eta Erromaren garaietatik hasita ondorengo gerra eta guduak oro aztertu ditu. Ez du sekula amore ematen, sekula ez barkamenik eskatzen, inoiz ez erakusten ahulgunerik".

Anekdotak esanguratsu horrekin zabaldu du *Der Spiegel* astekari alemaniarak Donald Trumpen estrategiaz bost kazetariren artean egindako potreta: "Trump and Bannon Pursue a Vision of Autocracy". Trumpek hauteskundeak irabazirik, bere hurbileneko aholkulari izendatu zuen eta gero Segurtasun Nazionalerako Kontseiluaren kide ipini.

Bannonekin batera Trumpen hurbile-

neko aholkularitza Mike Flynn jeneralak egin zuen agintealdiaren lehen asteetan. Baina otsail hasieran Flynnek dimisioa aurkeztu behar izan duenean Errusiaren ordezkarekin izandako elkarriketa batzuk prentsara iritsita, Bannon geratu da lehendakari berriaren hurbileneko estrategia nagusi. "Trump lehendakaria -idatzi dute *Der Spiegel*- jokatzeko ari da justu Bannonek desio zuen moduan. Agintera iritsi delarik, *destroyer* [suntsitzaile] baten lana ari da egiten. Lehendakariaren karguaren duintasunak bost axola dio eta hura higatzeari ekin dio lehen egunetik, bere *tweet* zital eta joera lotsagabeekin".

Steve Bannon, 62 urte, gizon handikotea, Irlandatik iritsitako etorkin familia batean sortua da. Aita telefono konpainia batean aritu zen lanean. Steve, Itsas Armadan ofizial aritu ostean, Goldman Sachs bankuan aurkitu zuen bidea aberastu eta hierarkian eskalatze-ko: milioiak irabazi finantzetako bankari moduan, elitearen kide izatea lortu, eta ondoren... elitearen (ustez) kontrako kanpainari ekin.

Eskuin muturraren propaganda tresna den *Breitbart.com* erosi zuen 2012an, bilakatuz Tea Party eta Alt-Right mugimenduen bozeramaile. Gero, Trumpekin batera boterera iristeko abagunea ikusi zuen: "Bannonek behar zuen Trump bezalako norbait, eta Trumpek hura bezalako bat, hedabide berriak erabiltzen eta jendeak manipulatzeko aditua den norbait", idatzi dute *Der Spie-*

gelen. Amerikar asko -eta mundu osotik inperio nagusikoak arretaz jarraitzen dituzten beste asko- Bannonek hartutako indarrarekin ohartu dira zein urrun iritsi den AEBetako eskuin muturra hamarkada hauetan pazientziaz eraikitzen joan den pentsamendu nazionalista, gerrazale eta supremazista.

Ditxosozko 'Laugarren Bihurgunea'

Bannonen ideien jatorri eta iturri intelektualak *The Huffington Post* hedabidean azaldu berri dituzte Paul Blumenthal eta JM Rieger kazetariak: "Steve Bannonek sinesten du Apokalipsia badatorrela eta gerra saihestezina dela". Ongi dokumentatutako kronika aberastu dute Bannonek urteotan batean eta bestean emandako elkarriketa eta hitzaldien pasarte bideoarekin.

William Strauss eta Neil Howe historialari integristen jarraitzaile sutsua da. Biek elkarrekin plazaratu zuten *Generations* 1991n, defendituz historia errepikatzen dela lau ziklotan, ziklo bakoitza 80-100 urtekoa, eta AEBak sartuta daudela laugarren zikloaren azken akaberran.

1997an argitaratu zuten *The Fourth Turning* [Laugarren bihurgunea] luzeago azalduz ziklo amaieraren ezaugarri apokaliptikoak. Belaunaldi zaharretik atera behar omen zuen -idatzi zuten orduan- belaunaldi gazte *heroikoaren* buruzagitza hartuko zuen liderra, *The Grey Champion*, agintea berdin hauteskunder edo krisi bidez



Jonathan Ernstek sinatutako argazkian, Donald Trump agintea hartu osteko lehenbiziko egunetan Errusiako Vladimir Putinekin mintzatzen. Aurrean dituen aholkularien artean, Steve Bannon da urrunen ageri dena, zutik esku artean paperak dituela. Eskuinean eserita ikusten da Mike Flynn jenerala, Trumpek agintea hartu eta aste gutxira dimititu duena Errusiaren ordezkariekin sobera hitz egin omen zuela eta. Honek kargua utzirik, Bannon geratu da Trumpen aholkulari eta estratega nagusi Etxe Zurian.

lortu ostean ordena berri bat eraikiko omen zuena.

Bannonen ikuskeran, AEBak gerra existentzial batean daude sartuta, gatazka horrek bilduz gainerako osagai guztiak. "Datozen 10-20 urteko epean, une jakin batean aurre egin beharko diogu krisi horri, zeinetan erabakiko den edo geu izaten jarraitu ala AEBak bilakatu zerbait arras diferente". Hil ala bizitzea dagoenez jokoan, ez da izan behar beldurrik itunak hausteko, etsaiak beren ize nez salatze, kultura aldatzeko. Laugarren Bihurgunean sartuta gaude eta lider mesianikoa, *The Grey Champion*, agertu da. Apokalipsia orain da, *omen* beti ere.

*The Huffington Post*eko kazetariak ezaugarri horixe azpimarratu dute Bannonengan: *Apocalyptic*, Apokalipsizalea. Behin eta berriro mintzatu da *Lau Bihurguneez* bere hitzaldietan. Aurreko

hirurak lirateke Ipar Amerikako Iraultza [independentzia gerra], Gerra Zibila eta 1929ko krisia gehi II. Mundu Gerra. Gerra bat beti aurrekoa baino handiagoa. Orain sartuta gauden Laugarren Bihurgune handiaren amaierako krisian, iradokitzen duenez Bannonek, espero behar dugu gutxienez aurrekoa bezain gerra bortitza.

Strauss eta Howek idatzi zuten duela 20 urte: "Erregimen berriak agintea hartuko du krisiaren lidergoan. Ez dio axola liderraren ideologiak, garrantzitsuenak da Estatuaren agintea indartzeko jendei sakrifizioa eskatuko diela. Lehen liderrek joera baldin bazuten gizartearen barne tira-birak baretzeko, orain barne tirabirak larriagotzen saiatuko dira horrela nazioa ernarazteko". Disidentziaren eta gutxiengoen kontrako zanpake-ta iragartzeko modu garbiagorik ba ote?

Erraza da aurkitzea Strauss eta Howen ideiak historia ez baina sasi-zientzia dela demostratuko duten historia-gileak. Bannonenak aurreikuspenak baino manipulazioak direla. Zer axola dio, ordea, eskrupulurik gabeko demagogoa prest badaude deiok saltzeko eta krisiak pobretu eta larritutako milioika jende baldin badago horiek erosteko irrikaz? Bannoni funtzionatzen dio.

Mendebalde judeo-kristaua hondoratzen ari omen da. Gaina hartzen ari omen zaizkio Islama batetik eta Txina bestetik. "Harro datoz, indarrean datoz. Islamaren kontra 100 urteko gerran sartuta gaude. Txinaren kontra gerra izango dugu bost edo 10 urte barru". 2011n esana: "Garai ilunak nozituko ditugu AEBetan berriro eguna argitu aurretik. Mingarria izango da, besterik dioena gezurretan ari zaizue". ■



50 urtez elkarrekin



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Fito Jimenez, Urbizi plataformako kidea

“Ura urtegietan bilduz gero, haren kontrola galtzen duzu”

Urak dakarrena, urak daroa... baldin eta ur hori urtegi erraldoi batean ez badute biltzen hamaika negozio egiteko.



Reyes Ilintxeta

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Gabriel Arestiren “Bartzelonako unibersidade mutil” horietako bat izan zinen?

Oraindik gogoan daukat poema hori, erdaraz. Sarriáko Kimika Institutuan ikasi nuen, Bartzelonan, Frankismoaren azken urteetan. Oso garai interesgarria izan zen. Politikara hurbildu nintzen bi bidetatik: alde batetik anarko-kristauak ezagutu nituen eta bestaldetik abertzaleak, Joxemi Zumalabereren bidez. Oso lagunak ginen. Bera izan zen nire lehen euskara irakaslea. Arestiren olerkiak ekartzen zizkigun eta buruz ikasten genituen. Bartzelonako euskal giroan eta ikasle batzordeetan mugitzen ginen. Ikasketak bukatutakoan Iruñera etorri eta bide komunista hartuta EMKn sartu nintzen. Garai hartan, frankismoaren azken urteetan, lehen mugimendu ekologistetan hartu nuen parte. Lanean ere alor honetan hasi nintzen berehala, energiari buruzko ikerketetan eta hondakinen kudeaketa plangintzak egiten.

Laster Erdialdeko Amerikara joan zinen. Zer dela eta?

80ko hamarkadaren bukaeran Nikaragua joan nintzen Espainiako Agentziak kontratataturik hango gobernua-rekin hondakinen plana egiteko eta uraren inguruko programa batzuk abia-

razteko. Hango jendearekin oso lantalde ona egin genuen, baina 1990ean sandinistek hauteskundeak galdu zituztenean alde egitea nahiago izan nuen eta Guatemalara joan nintzen.

Zertara?

Hiru urte aritu nintzen nire kasa Chiapasen egondako Guatemalako errefuxiatuekin lanean, haien itzulera prestatzen. Han Rigoberta Mentxurekin aritu nintzen, Nobel saria hartu baino lehen. Oso harreman ona genuen. Diru arrazkiak amaituta Iruñera itzuli nintzen 1993an eta Itoizko urtegiaren inguruko txosten bat egin nuen.

Eta gero berriz Amerikara?

Egia esan ikaragarri aspertzen nintzen, baina suertea izan nuen eta Munduko Medikuegandik jaso nuen deia, errefuxiatuen itzulera berriz lan egiteko Amerikan. Erdialdeko Amerika osoan ibili nintzen, Chiapas, Nikaragua eta Salvadorren, batik bat.

Noiz itzuli zinen Euskal Herrira?

1998an. Bikotekideak, Pili Yoldi kazetariak, garapenaren inguruko lan bat egitera etorri behar zuen EHUra eta itzultzea erabaki genuen. Plentzian jaio zen

gure alaba nagusia, baina berehala joan ginen Portugalera Munduko Medikuek han abiarazi nahi zutelako erakundea eta laguntza beharrean zeuden. Bi urte izan ginen han, hango mediku eta erizainekin lanean, oso jende jatorra, eta diru emaile sare sendoa eratu genuen. Programak abian jarri ondoren Iruñera itzultzea erabaki genuen. Gure haurra desgaitasun batekin sortu zen eta pentsatu genuen hobe izanzen zela etxera itzultzea.

Fito Jimenez

1950, Cintruénigo

Ingeniari kimikoa. Erdialdeko Amerikan hamar urtez ibili zen errefuxiatuekin eta ingurumen proiektuetan lanean. Nueva Cultura del Agua fundazioko eta Nafarroako Urbizi plataformako kidea da. Ura eta baliabide naturalen kudeaketan eskarmentu handiko aditua. Itoizko urtegiaren aurkako txostenaren egilea da. Itoitz eta Esako urtegiaren handitzearen aurka eginiko lanagatik Coagret saria eman zioten 2014an.



Nafarroako Ingurumen Arloko Balia-bide Zentroa enpresa publikoan hasi nintzen lanean eta hor izan naiz iaz erretiroa hartu arte.

Ura-Nueva Cultura del Agua taldeko kidea zara. Zer da talde hori?

Penintsulan diharduen oso erakunde interesgarria da, bereziki akademiako adituek osatua. Uraren kudeaketa ja-sangarria ideiatik abiatuta, herri mugimenduei sostengu teknikoa emateko asmoarekin sortu zen. Guk Itoizko urtegiaren inguruko txostena egin genuenean haien laguntza izan genuen. Amerikatik itzulitakoan sartu nintzen eta orain zuzendaritza taldean nago, baina denbora gutxirako, gazteei bide eman behar zaielako. Haiekin harremanetan hemen Ura izeneko plataforma sortu genuen, baina orain aldaketa eginen dugu eta Urbizi izena izanen dugu hemendik aurrera.

Izenaz gain izaera ere aldatuko da?

Garai berri honetan sare bat antolatu nahi dugu. Asmoa da eskualdeetan uraren inguruan lanean ari diren kolektiboek batzordean protagonismoa hartzea: Esako urtegiaren aurka dagoen Zangozako jendea, Antzin eta Egaibarrekoak, Garesko historikoak, ubidearen aurka lan egin zuten Lerin, Carcar eta Miranda Argako aktibistak, Erriberri, Mendigorria eta beste herri askotako nekazariak eta Erribera, Baztan eta Sakanako taldeak ere hor egotea nahi dugu.

Uraren inguruko aldarrikapen nagusiak Itoitz eta Esako urtegi handien aurkakoak dira?

Urtegi horiekin astakeria ikaragarriak egin dira eta egiten ari dira. Nueva Cultura del Agua fundazioko bi kidek, Jose Manuel Naredo ekonomistak eta Federico Aguilera Klink La Lagunako katedratikoak, megaproiektuei buruzko oso liburu interesgarria argitaratu zuten. “Esne saltzailearen ipuina” bezala definitzen dituzte. Edozein megaproiektu aurkeztean beti argudio berdinak erabiltzen dituzte, berdin AHT, autobideak, urtegiak edo aireportuak izan. Itoitzen 8.000 lanpostu sortu, bi edo hiru mila nekazari finkatu, Agoitz eta Artzibarerra turismoa erakarri, industria garatu eta gainera ur emari ekologikoa ziurtatuko zuela esan zuten, beste gauza

» “Batzuek uste dute zenbat eta urtegi gehiago izan orduan eta ur gehiago dugula, eta hori ez da egia. Bizitzeko behar dena baino gehiago bilduz gero, berehala agertzen dira ur horren jabe egin nahi dutenak eta kontzesioak. Ondare publikoa pribatizatzen da, eta kontzesio horiek ezin dira gero kendu”

askoren artean. Neurritz kanpoko zenbakiak erakusten dituzte beti, eta gero errealtatea horren erdiaren erdia dela ikusten da.

Proiektu horien beharra azpimarratzen dutela ere esaten duzu.

Eskaerak hanpatu egiten dituzte edo asmatu: Itoitz oso beharrezkoa dela esaten zuten Iruñean, adibidez, 2000. urtean 50 hm³ ur kontsumituko genuelako. Eta ez da horrela: 2015ean 30,2 hm³ gastatu ditugu, duela 30 urte bezala, nahiz eta orain 350.000 biztanle inguru izan, orduan baino 50.000 gehiago. Estrategia horrekin segituz, eskaera handitzen duten bitartean, oso kostu apalak aurkezten dituzte, eta bukaeran beti izaten da esandakoa baino askoz ere garestiagoa. Egiazko beharra bada erdiaren erdia, prezioa da bikoitzaren bikoitza.

Kasu guztietan “ezinbesteko” eta “eztabaidatik kanpoko” zerbait bezala aurkezten dute proiektua. “Estrategikoa” eta “interes orokorrekoa” dela diote beti eta hori esanda erabakitze demokrazia ukatzen dute. Ezin da askatasunez eztabaidatu.

Iruñerriak ez du Itoizko ura behar?

Iruñerriak Itoiztik urtean 20 hm³ kontsumituko zuela esan zuten eta bi kontsumitzen ditu. Gainera, milioi bateko kanon izugarria ari da ordaintzen, ia urik kontsumitu gabe. Arteta eta Eugiko urarekin aski dugu. Itoizko urik gabe, gehienez jota abutzu gorrian noizbait

geldi gintezke zenbait egunez lorategiak ureztatu gabe. Hori litzateke larriena. Beste aukerarik bilatu gabe Itoizko ura hartzea erabaki da.

Nekazariak ez al zeuden uraren zain irrikan?

Jende asko sartu zen ubidearen lehen fasean, bi aukera zeudelako: sartzea edo desjabetzea. Horietako batzuek oraindik ez dute ezta hoditeria sistema jarri ere lursailetan eta beste askotxok ez dute ubideko ura erabili, beharrik ez dutelako izan.

Bigarren fasean ikusiko dugu zenbait nahi duten ubidetik ura hartu. Hasieran 20.000 hektareaz hitz egiten zuten, orain 15.000 edo 10.000, baina guk uste dugu 5.000 edo 6.000 hektarea baino ez direla sartuko. INTIA (Nafarroako Teknologia Institutua eta Nekazaritza Elikagaien Azpiegitura) lanean ari da eta txosten bat aurkeztuko die nekazariari dauden aukera eta prezio guztiak azalduz. Ubideaz gain dauden beste aukerak ere azalduko dizkiete eta haiek erabakiko dute. Oso txosten ona da eta informazio guztia ematea oso ongi dago.

Orduan, nork eta zertarako behar ditu urtegiak?

Garai batean interes orokorreko azpiegiturak ziren, populazioaren zati handi bat laborantzatik bizi zelako, baina gaur egun urtegi handiek eraikuntza enpresei eta etorkizunean urarekin negozioa egin nahi dutenei egiten diete mesede. Uraren merkatuak oso garrantzitsuak izanen dira etorkizunean.

Ura bildu, gero beste erkidegoei saltzeko?

Bai. Estatu mailan PSOEk Borrelekin ibai batzuetatik besteetara ura eramateko sare ikaragarria prestatu zuen, gero Zapaterok hankaz gora jarri zuena. Hala ere, aurrera doaz eta Acciona, Caixa, Agbar OHL... enpresa handiak dira negozioa egiteko prest daudenak. Honen aurrean guk uste dugu ura ibaian dagoela inon baino hobeki. Batzuek uste dute zenbat eta urtegi gehiago izan orduan eta ur gehiago dugula, eta hori ez da egia. Bizitzeko behar dena baino gehiago bilduz gero, berehala agertzen dira ur horren jabe egin nahi dutenak eta kontzesioak. Ondare publikoa pribatizatzen da, eta kontzesio horiek ezin dira gero kendu. Adibide bat: Ingurumen kontseilaria zenean Yolanda Barcinak



"Iruñerriak Itoiztik urtean 20 hm³ kontsumituko zuela esan zuten eta bi kontsumitzen ditu".

Huarte familiari Argan, Garesen, elektrizitatea sortzeko hiru presa egiteko baimena eman zion, Nafarroako Unibertsitateak eginiko txosten bat oinarri hartuta. Lotsagarria eta adibide garbia ikusteko nola erosten diren txostenak. Argak bazuen berez garbitzeko aukera Etxauri eta Gares artean dauden ur jauzietan, baina zentralek eragozten dute. Ibaia ari dira izorratzen. Ura doan eman zaie, baina gero eskubidea berreskuratu nahi baduzu dirutza ikaragarria ordaindu behar diezu enpresa horiei.

Baina guk ez badugu hartzen, beherago norbaitek hartzen ahal du negozioa egiteko.

Ura ez da alferrik galtzen ibaian uzteagatik. Ura Mediterraneoraino iritsiko ez balitz, adibidez, hango hondartza guztiak desagertuko lirateke eta arrainak berdin. Ura ez da gurea, ibaiarena baizik, ekosistemarena. Guk ibaiaren funtzionamendu egokia ziurtatu behar

dugu. Hori da etorkizunerako berme bakarra.

Urrezko arrautzen oiloaren ipuina-ren antzekoa da. Nafarroa iparraldean euri asko egiten du eta hegoaldean gutxiago, baina izugarritzko ibai onak pasatzen dira: Aragón, Ega, Arga, Ebro... Erriberan ez dira inoiz ur eskasian izan. XII. mendetik ubideak egin dira eta beti egon da ur pila lursailak ureztatzeko. Gainera, badira akuifero ikaragarri handiak, denera 500 hm³-ko edukiera dutenak, Esako urtegiak bezainbeste, baina batzuk kutsatuta daude. CHEn arabe-ra, Arga oso egoera txarrean dago eta Aragón ibaiarekin bat egitean hura ere kutsatzen du. Arakil eta Ultzama ibaiak ere oso kutsatuta datoz lantegietako eta ganadutegietako isurketengatik.

Akuiferoetako ura ezin da erabili?

Akuiferoetan oso ur ona zegoen edateko eta ureztatzeko, baina batzuk oso kutsatuta daude nekazaritzan erabiltzen

diren nitrato eta herbizidekin. Ezin da inola ere edan. Urrezko arrautzen oiloa akabatu dugu eta orain kexu gara ezin dugulako edan eta eskatzen dugu Itoiztik bidaltzeko ura. Ura Europa osoan kutsatu da. Horregatik, 2000. urtean Uraren Arau Markoa onartu zuten uraren kalitatea ziurtatzeko asmoz. Legea ez zuten ekologistek egin, politikari eta ekonomistek baizik. Ibaiak eta akuiferoak suntsitzea ez da errentagarria. Gu "zero kilometro"ren filosofiaren aldekoak gara. Gertu dagoen ura erabili eta egoera onean mantendu.

Nola dago Nafarroako Ubidearen bigarren fasea abian jarriko duen proiektua?

Lur-azpiko tutua UPNk pentsatua zuen ubide erraldoia baino merkeagoa eta azkarragoa da, zalantzarik gabe, baina ikusi beharko da zer eskatzen duen jendeak. Gezurra da esatea Erriberan urik ez dagoela. Han aldarrikapen nagusia da edateko kalitatezko ura behar dute-



Azken hitza: Azkoiengo alpapa xekeen zaldientzat

“Ubidearen lehen fasea amaituta, ikusi da lanpostuak galdu direla. Nekazari txiki askok lurra saldu behar izan dute edo kooperatiben esku utzi, errentadun bihurtuta. Jendea labore soroetatik ateratzen ari gara.

Enpresa handiak hasi dira lurak alokatzen. Azkoieneren, adibidez, bada enpresa bat lursailak lau-bost urtetarako alokatzen dituen alpapa jartzeko. Bezero nagusiak xeke arabiarren zaldiak dira. Negozio hori lege barruan dago, noski, baina egokia da diru publikoa erabiltzea horretarako? Desberdindu beharko litzateke zer den interes orokorrekoa eta zer ez”.

la, baina Erriberako lursailak oso ongi ureztatuta daude oro har Ebrotik hartzen den urarekin, Moncayotik datorrenarekin, Lodosako, Tausteko eta Ubide Inperialetik hartutako urarekin.

Cascante, Ablitas, Cintruénigo, Corella eta Monteagudo dira arazo gehien dutenak, baina nekazariak oso gutxi dira eta soluziobideak asko izan daitezke, ez soilik Itoiztik ura ekartzea. Azpiegiturak berrituta, gertuko ura baliatuta eta akuifero garbiak bilatuta ur asko lor liteke. Ubide berri bat egitea ez da soluziobide bakarra.

Canasa sozietate publikoa urak arrastoean ezin sartu dabil?

Gargantua eta Pantagruel ipuinean bezala, Canasa munstro ase ezin bat da eta bizirik irauteko bezero berriak lortzeko beharra du. Orain arte 1.700-1.800 milioi euro gastatu dira Itoizko urtegiaren eta ubidearen lehen fasean. Zati

bat Estatuak ordaindu du eta bestea Nafarroak. Horri gehitu behar zaio itzalpeko bidesariarena: 1.000 milioi euro hemendik 30 urtera.

Canasa elkarteak da hori dena kudeatzen duena. %60 Estatuarena da eta %40 Nafarroarena. Esan zuten elkarteak ubidearen erdia ordainduko zuela eta beste erdia erabiltzaileek, alegia, zentral hidroelektrikoek, edateko eta ureztatzeko ura hartzen dutenek. Baina hiru hantek huts egin dute: Rajoyk energia berriztagarriei pizgarria kendu die, beraz zentraletatik espero zenaren erdia iritsi da; edateko ur kontsumoa jaitsi egin da Iruñerrian; eta nekazaritzarako uraren kontsumoa ez zen espero bezain bestekoa. Canasak pitzadura ikaragarriak ditu. Horregatik, Nafarroako Gobernuak 77 milioiko kreditua eman zion eta Madrili eskatu berri dio beste bat 115 milioikoa. Orain bezero berriak arrantzatu behar ditu Erriberan. ■

Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA

Opari berezietarako
Pertsonalizatuak
Prezio aukera desberdinak

ARGIA

www.argia.eus/denda/makilak
denda@argia.eus | 943 371 545

Aberaskumeen matxinada

Bukaresten mobilizazio handiak izan dira ustelkeriaren kontra iragan asteetan. Hogeita bost urte baino gehiago pasatu dira Errumaniak neoliberalismoa besarkatu zuenetik. Ordutik herrialdea kanpoko kapitalaren esku jarri da, pobrezia gora egin du eta krisaldi sozialari aurre egiteko emigrazioa irtenbide nagusietako bat da herritarrentzat. Balkanetako herrialde horretan protestatzeko motibo asko dago, baina ez da kasualitatea XXI. mendean kaleak jendez bete izana, soilik ezkerreko gobernu aratz bat osatu denean.

2016ko abenduko hauteskundeetan sozialdemokratek garaipen handia lortu zuten. Horri esker, azken hamarkadetan lehenengo aldiz Errumaniako Gobernuak neoliberalismoaren kontrako neurri-sorta jarri du martxan: gutxieneko soldata %16 igo du (275 eurotatik 320ra); soldata handiek osasun, pentsio eta langabezia sistemak ordaintzeko zergak 1.380 eurora arte ordaintzen zituzten soilik, hortik gora irabazten zutena ordaintzetik salbuetsita zegoen, orain soldata osoak ordaindu behar ditu aipaturiko zergak; azkenik, atzerriko multinazionalen irabazien gaineko zerga %5etik %16ra igoko zaiela iragarri du gobernuak. Horrela, orain arteko zergen politika neokolonialarekin amaituko litzateke, izan ere, atzerriko enpresa multinazionalen zerga gutxiago ordaintzen dituzte errumaniarrek baino. Neurri berri horrek lehiatzeko garaian aukera berdintasuna segurtatuko lieke etxeko enpresei eta ogasun publikoaren finantzak hobetuko litzake politika sozialetan inbertitu ahal izateko.

Halere, gobernu berriak hutsegite larria izan du. Europar Batasunak Errumaniako presondegien egoera kaskarra salatu izan du maiz, baita azpimarratu ere gainpopulatuak daudela. Horri aurre egin nahian, Justizia ministro Florin Iordache-k bost urteko kondena baino gutxiago duten presoak ateratzeko or-



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AxiBM

Mendebaldeko gobernuak, enpresek eta milioi-dunek ordaintzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) eskumaren eta enpresarien babesa aitzakia paregabetzat hartu zuten ezkerreko gobernuaren kontra jotzeko. Errumaniako eskumako presidente Klaus Iohannis-ek manifestariak animatu eta babestu ditu

denantza onartu zuen. Neurria aplikatu izan balitz, kondenaturiko politikari ustel asko kalean egongo lirateke. Posibilitate horrek haserrea piztu eta mobilizazioak hauspotu zituen ustelkeriaren eta gobernuaren kontra. Mendebaldeko gobernuak, enpresek eta milioi-dunek ordaintzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKE) eskumaren eta enpresarien babesa aitzakia paregabetzat hartu zuten ezkerreko gobernuaren kontra jotzeko. Errumaniako eskumako presidente Klaus Iohannis-ek manifestariak animatu eta babestu ditu. Bestalde, bitxia izan da ikustea atzerriko enprestatiko eta bankuetako buruak protestetan parte hartzen, beraiek ustelkeriaz ezer jakingo ez balute bezala.

Mobilizazioetan klase ertain-altua izan da nagusi. Brasilen Dilma Rousseff kontrako protesten itxura hartu dute: oligarkak, jende aberatsa, kanpoko enprestatiko langileak, unibertsitarioak eta GKEetan lan egiten duten gazteak zeuden nagusiki. Karteletan pobreei boto eskubidea kentzeko aldarrikape-nak zeuden eta gobernu komunizatzat jo zuten. Halako batean, gazte batzuek kanpoko enpresen abantaila fiskalen kontrako pankarta bat atera zuten, eta segidan, manifestariak manifestalditik botatzeko inguratu zituzten. Paul Hitter-ek (bere burua ijito artistatzat duenak) eta Laurentiu Ridichiek, bi artista errumaniar, manifestazioei buruzko zenbait irudi egin zituzte manifestariak aberaskume kapitalista zaleak bezala karakterizatuz.

Mobilizazioak hasi eta egun gutxira Justizia ministroak dimititu zuen, berak sustatutako erabakiak bertan behera geratu ziren. Halere, noski, protestek jarraitu zuten, izan ere, mobilizazioen benetako helburua neoliberalismoaren aurkako neurriekin amaitzea zen. Munduan azkenaldian barreiatzen diren aberaskume matxinaden beste adibide bat izan da Errumaniakoa. ■

Mendekua merezi duen oparia

E brotik hegoaldeko errepublikanoek, are monarkikoek ere, Espainiatik egotzi beharko lukete Nafarroa, mendekuz bertzerik ez bada ere. Hau dinastia hau, Borboikoa, Nafarroan lortu zuena lehen aldiz erregetza kategoria, Antonio Borboikoren eskutik, Joana II.a Labritekoren ezkontide gisa. Bien seme oinordeko Borboiko Enrike III.a izanzen errege titularra, geroago orobat Frantziako Enrike IV.a bihurtuko zena, eta hasiera eman familiaren errege-dinastiari Frantzian. 1700. urtean emanen zuen salto Borboiko leinuak Frantziako koroaz gain espainiarraz ere jabetzera. Ordutik hona, XVI. mendeko Nafarroaren opari bezala jasan behar izan du dinastia hau Espainiak, urte batzuetan salbu (Jose Bonaparte 1808-1814, Saboiako Amadeo 1870-1873, I. Errepublika 1873-1874, II. Errepublika 1931-1939, frankismoa 1939-1975 artean).

Ezin erran espainiar herritarrengan atxikimendu beroegia izan duenik dinastia honek bere ibilbidean. Espainiako lehen Borboiko Felipe V.ak urte luzetako gerra bat gainditu behar izan zuen koroa mantentzeko, Aragoik eta Herri Katalanek haren erregetza onartu nahi ez eta haren kontrako gerrari ekin ziotelarik. Borboikoengandik, hamar guztira, bortzek gainditu behar izan zituen gerrak, edo Estatu-kolpeen onuradun izan behar, koroari eutsi edo hura lortzeko: Felipe



Bixente Serrano Izko

IDAZLEA

@Bixentesi

Ederra egin genien
espainiarrei nafarrek
Borboikoei erregetza
kategoria eman genienean!
Nik, espainiarren larruan,
Nafarroa egotziko nuke
Espainiatik mendekuz eta
profilaxi neurri gisa

V.a, Fernando VII.a, Isabel II.a, Alfonso XII.a eta Juan Carlos I.a zehazki. Ez da ehuneko makala, % 50! Hamar horien-gandik ere, lauk izan behar du abdikatu edota Espainiatik ihes: hala nola, Carlos IV.a, Isabel II.a, Alfonso XIII.a eta Juan Carlos I.a: % 40, makala ere ez dena. Ea, edonola ere, Felipe VI.arekin lortzen den % 50era heltzea.

Ustelkeriatan ibiltzea ere leporatu zaio, eta zinez frogatu ere Justizia sistemek ebatzirikoa despit, horietako hainbat koroaduni: Isabel II.a, Alfonso XIII.a, Juan Carlos I.a. Eta hortaz haien ihesi beharra edo abdikazioa. Orain berri, Felipe VI.a-ren arreba agertu zaigu Espainiatik ihes egiteko nahian, bere aurkako epaiketa amaitu bezain laster. Jakina, gaurko Justizia sistemak ez du aurkitu errudun haren senarraren diru manipulazioaren aferan, nahiz eta ezjakin dela erabaki behar izan duen: ezjakin, justiziak berak hala aldarrikaturik. Ez da marka makala hau ere!

Hara! Ene deformazio profesionalak eta ene nafartasunak hartu didate gaina gaurko honetan, datu idorregiak mahai gaineratzeraino, biziago eta koloretsuago nahi nuen artikulua honetan. Baina, datuak ikusirik, ederra egin genien espainiarrei nafarrek Borboikoei erregetza kategoria eman genienean! Nik, espainiarren larruan, Nafarroa egotziko nuke Espainiatik mendekuz eta profilaxi neurri gisa. ■

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Bozka ezazu!

Bozkatzeko epea:
otsailaren 13tik martxoaren 10era
blogetan.eus

Antolatzailea: **ARKUE**
FUNDATIA

Laguntzailea: **ARGIA**

Euskararen Egia



Zigor Etxeburua
KONTSEILUKO TEKNIKARIA
@ZEtxeburua

Errealitate paraleloen garaian bizi gara, teknologia digitaleko gailu berriek birtuala eskura jarri digute. Berria ez dena da errealtatea mozorrotzeko agintariek izan duten eta berresten duten irrika. Horren erakusle euskal oasia hitzetik hortzera izatea *teleberriek*, egunero. Bada, orain, hizkuntzaren alegiazko errealtatea eraiki nahi digute, handik eta hemendik.

Euskara, insatisfakzio batzuk gorabehera, duin omen dabil hizkuntzen txapelketan. Izango da ez ditudala betaurreko egokiak jantzi, eta ezagutzen nauenak badaki, satorraren bidetik noanez, betaurrekoak erabili erabiltzen ditudala, baina ez dut hori ikusten nire egunerokoan. Nik ere nahi dut asebeteko nauen egia ofizial hori ikusi. Areago, errealtate hori bizi nahi dut, zer arraio!

Ordea, hain dira monumentalak euskararen errealtate instituzionalaren defektuak! Osakidetzak kanpaina eragingarria abiatu du, euskaldunok euskara hauta dezagun erakundearekiko harremanetarako hizkuntza gisa. Hori bera egingo balute administrazio guztiek! Baina (bai, ezin pasa bainarik gabe) zer bururatuko, gaztelania hautatzeko deia duten oihaltzarrak eskegitzea besterik. Tira, anekdota hutsa izango ahal da! Aitzitik, anekdota baino gaiztakeria da bizirauteko kinka batean diren euskarazko he-dabide nazionalen duintasuna eta erreferentzial-

tasuna ekarriko liekeen publizitate instituzionaletik apurrak besterik ez ematea, eta justiziaz zor zaizkien laguntzak izoztea, bide batez *Eguna* itxi zutenen bandokoa den egunkariari diru sail galanta oparituz.

Defektuen artean elefanterik bada, hori *Napartheida* inposatzen duen Vascuencearen Legea da. Hortxe dakusagu pertsonen aurkako legea, egongelaren erdian, oraindik, “aldaketaren indarrek” gehiengoa lortu eta bi urtera. Egia ofizialak esan digu Vascuencearen Legeak ahalbideratzen duela euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzea! #daflipat: Ez da hain egia izango, lege hori beste tresnarik eskura ez eta, demokraziaren aurkako legea ordezkatu bitartean, eremu mistora pasatzeko eskari ulergarria egin baitute hainbat udalek. Eskari horri erantzunez, legea moldatuko du Nafarroan agintea duen laukoak, eskualde mistoa herri gehiagotara zabaltzeko. Baina aukera eskutik izanik ere, ez dirudi nafarren arteko bereizkeria inposatzen duen Vascuencearen Legea baztertu eta euskaldunoi duintasuna itzuliko digun legea egingo dutenik, laukoteko bi alderdik horixe eskatu arren.

Gauzak horrela, errealtatea euskararen Egia-
ren betaurrekoetatik begiratu eta ekiten jarraitzea dagokigu. Konfiantza herritarrengan jarritz, beti bezala. ■

Bi kontu argi



Edu Zelaiaeta
IDAZLEA

Cristina Uriarteren asmo oneko hitzak irakurri prentsa digitalean eta hurrengo egunean EAEko hezkuntza arloko sindikatu nagusiek gebarako deia entzun duzu irratian. Ezin xehero jakin, kronologiak iradokitzen duenaren ildotik, lehenbizikoaren adierazpenek zuzenean bigarren erabakia ekarri ote duten: hezkuntza sistema hobetzeaz ari zen sailburua, eta horretarako hainbat neurri aipatu ditu; Jaurlaritzak “oraindik” onartu ez dituen murrizketak salatu dituzte sindikatuak, eta horretarako huelgara deitu dute.

Afera akzio-erreakzio lege zahararen barrenean kokatu edo ez kokatu ari zara pentsatzen sukaldean,

goizeroko ogi xigortuari marmelada eman bitartean. Nolanahi ere den, administrazioari dagokio hezkuntza politika egitea eta, beraz, besteak beste, hezkuntza arloko sindikatuarekin harreman onak izatea. Horrainoko iritzia behinik behin baduzu.

Bigarren kontu bat ere argi duzu: PISA txostenaren emaitza kaskarrek eragin dute sailburuaren agerraldia, komunikabideek emaitza horiek plazaratu eta ondoan; hau da, ranking batean *lortutakoaren* arrastotik mugitzen dira (batez ere) gure agintariak, eta ez, esate baterako, hezkuntza komunitatea osatzen duten eragileek hala eskatuta. ■

Bi aholku zoro

Euskal Elkargoko arloetako arduradunak hautatzean, abilki ibili da Jean-René Etxegarai presidentea, inplikatur egitasmoaren kontra zirenak, baita lekua utziz abertzale etiketadunei ere –ez soberarik halere, hogeita lauatatik bost baitira EAJkoa kontatuz gero– eta hizkuntza politikaren komisioren buru dugu Beñat Arrabit.

Detaile pipertsu bat: filtratu da Peio Claverie-ri ziotela proposatu lehen intentziotan eta honek kargua ukatu. Pena eman dit kontuak: gogorazten baitu hainbatetan abertzaleei karguen asumitzeko prestutasun eza leporatu zaiela eta neke zait ulertzea gaia “pisuzko hautetsi” bati ematea egokiagoa litzatekeelako aitzakia. Dena dela, ez da harritzekoa horrelako misioaren aitzinean dudatzea. Hizkuntza politikarekin euskaltzaleak zorrotz eta aurkariak tole egonen direlako. Gainera, ez badabil, euskaldunengatik izanen da. Ez da partida goxoa datorrena eta EAJko Arrabitek ez du Ajuria Eneko sostengu paternala aski izanen aurrera egiteko, baina ontsa inguraturik eta zorrotz jokatzuz, aitzina baizik ez dezake egin.

Aholku ematekotan, hau oroitaraziko nioke: gaur (politikari) erdaltzaleak dira mugatzen gaituztenak. Azken urteetan Iparraldeko gizartearen parte inportantea mobilizatu bada hizkuntzaren ezagupenaren alde, aurkakoen parte handia da: trabatzen duena, kontra egiten nahiz futitzen dena. Halaber multzo honek ordezkari andana ditu Elkargoaren karguetan, nahaskeriatan zailduak. Oroitu: euskararen eskumena Elkargoak bere gain hartu egunean berean, parte hartzaileetarik batzuk “Frantzian gaude” hegiarora kexatu ziren, kide batzuek hitzartzea euskaraz egitea galdetu zutenean. Dударik gabe, emendatuko da joera, logikoki: diru publiko gehiago bideratuko da, hizkuntzari neurri gehiago hartuko eta orokortuko lurralde mailan,



Bea Salaberri

IDAZLEA
@beatxo



Antton Olariaga

araiz! Amets soil hau aski da frantximentak mehatxatuak sentitzeko.

Kexatzen dena mehatxatua sentitzen baita, baztertua izateaz, zerbait galtzeaz, bere botere jakobinoa ez aplikarazteaz. Etorkizun hurbilean euskararen hizkuntz politika garatuko balitz, guk irabazi baina jende horiek ez lukete deus galduko. Baina hori ez dakite. Adibidez, Hegoaldean lan munduan burutzen diren erabilera plangintzetan, arrakastaren baldintzetarik bat da lortzea planetik kanpo direnak ere integra daitezen, plana beraiena ere egin dezaten, horretan rol bat ukan. Erdaldunak, euskaraz ez eginik ere, bat egiten badu planteamenduarekin ez du ondotik oztopatzen dinamika. Horrela, irabazle sentitzen direlako, lortzen da euskaldunak ez marjinatzea.

Politika berriak definitzean, funtsezkoa iruditzen zait gizartearen parte hori desaktibatzen estrategiak eta diskurtsoak pentsatzea. Arrabiti opa diot asmatzea finki jokatzeko eta ororen inplikatzeko euskararen planean, Hegoaldean bere kideek sekulan lortu ez dutena hots, bestela mugaren haraindian bezala eternalak izanen direlako eztabaidak, antzuak eta ziklikoak. Halere, horrek ez du erran nahi hartuko diren neurriak negoziatu behar direnik, gutxiago egitea onartu behar denik, baizik eta desberdinki bideratu behar dela, kreatiboa izan argudiaketan.

Ondotik, hasian hasi, euskalduntzat bezala, kakinarazten gaituzten erdaldun traumatikoentzat TELP ikastaro bereziak apailatuko nituzke. Frustratzeaz gain, hingatzen baikaituzte betiko aurpegi eta sermoiekin. Egin diezaiegun ikasgai bat neurrira: ikas dezaten ez panikatzen, aurreiritziak baztertzen, komunikazioan ahalegintzen. Hori ere lantzen da eta! Eta beharrezkoa ere da, euskaldunak deskonplexatzea, akuilatzea bezainbat, aukerak biderkatzea bezainbat. ■

Deskontu Sarea, abian!



Orain,
BERRIAlagunek
deskontuak tokiko
saltokietan!

Sartu webgunean, eta baliatu deskontuak:
berria.eus/berrialaguna/deskontusarea



Deskontu kupoi bat baliatu nahi duzu?

1. Sortu kontua BERRIAlagunaren webgunean
2. Inprimatu kupoa Deskontu Sarea ataletik edo deskargatu telefonoan
3. Aurkeztu dendan BERRIAlagun txartelarekin batera

Zure ekarpena deskontuen bidez berreskuratuko duzu:

- > Dendak
- > Jatetxeak
- > Museoak
- > Landetxeak
- > Ikuskizunak
- > Aisialdi guneak



Babestu BERRIA eta gozatu abantailez!

berria
mundua•euskarari•emana

Hilekoa

Sentitu jarioa, eta isuri nahieran

Irudikatzen duzu hilekoa aske isurtzea odola atxikitzeko ezer erabili gabe? Galtzetan orban gorri ilunarekin kalean lasai doan emakumea irudikatu dezakegu agian. Eta esaten badizut hilekoa bota beharra sentitu eta komunean edo nahinon askatzeko gai izatean datzala odol isurketa librea?



Itziar Ugarte Irizar

@itzugarte

ARGAZKIA: DANI BLANCO

“Gizonek gidatutako gizartean hilekoa lotsaz eramatearen araua ezarri da, biztanleriaren erdiak egunerokoan bizi duena normaltasunez bizitzea ezintzen duena”. 2015eko abuztuan Kiran Gandhi M.I.A. taldeko bateria-jotzaileak idatzitako hitzak dira. Londresko maratoian hilekoa galtzetan agertu zen korrika Gandhi. Ikuskera maskulinoek agintzen duten gizartean emakumeek hilekoaren zikloa izango ez balitz bezala jokatu behar dutela salatu zuen, ezin azalera-tuz gorputz ziklikoa izateak dakarrena.

Antzeko ekintza egin zuen Rupī Kaur poeta pakistandarrak. Odol orbanekin argazkiak sarera igo eta Instagram sare sozialak zentsuratu egin zituen, hilekoak tabu izaten jarraitzen duen seinale. “Ez noa barkamenik eskatzera barruko arropatan ikusi nahi nauen baina orban txiki batekin deseroso sentitzen den gizarte misoginoaren urguilua elikatze”, adierazi zuen poetak.

Erika Irusta Barakaldon sortua eta hilekoaren pedagogo bakanetakoa da munduan, El Camino Rubi eta Soy1Soy4 proiektuen sortzailea. Odol isurketa librea mugimendu ekologistaren inguruko lagun batzuei esker ezagutu zuen berak, baina gaiak amu ugari dituela dio; Gandhi eta Kaurren gisako aldarrikapena baino, batez ere, gorputzaren ezagutza. Hilekoaren egunetarako gutxi ezagutzen den aukera da: kontzientzia korporala eta zoru pelbikoa landu eta hileko odol isuria kontrolatzeko gaitasuna izatea.

Nola, baina?

“Kontrakzioen sentsazioa da, maskurian pisua jarri eta txiza egitera zoazela-edo sentitzen duzu, baina badakizu ez dela txiza”, kontatu du Irustak. Ez bagina ez umetokiaren lepoa ez dira kon-



trolatu daitezkeen esfinterrak, baina zoru pelbikoa lantzeko ariketen bitartez posible da odola isurtzeko beharra sentitzea. Bere esanetan, “ez gernua bezainbeste, baina minutu gutxiz posible da odola eustea”.

Galdera berez dator: nolatan emakume gehienek ez dute sentitzen? Beraien pelbisa ezezagun hutsa delako eta genitalekin eta fluxuekin zerikusia duen oro tabua izan delako gure kulturaren. Ginekologo askok kontua mesfidantzaz begiratzen badute ere, Irustak dio gero eta aditu gehiagori entzun diela pelbisarekin konexio neuromuskularrak lantzean kontrolatzea lor daitekeela.

Hilekoaren zikloa ez da odola kanporatzen den lauzpabost egunetara mugatzen. Etengabe hor dagoen auzia dela azpimarratzen du bere lanean Irustak, nahiz eta zikloa erabat ezezaguna izan gehiengoarentzat. Honen lau faseetan –hilekoa, aurreobulazio fasea, obulazioa eta hilekoaren aurrefasea– gorputzean izaten diren aldaketa fisiko, mental eta gogo-aldartearenak ez ditugula ezagutzen dio, kulturalki “histeriarekin eta antzeko irakurketa patriarkalekin” irakurri direlako. Hormonek eragindako aldaketa horiek ezin direla arazo moduan ulertu defendatzen du, alderantziz, gorputz esperientzian oinarrituta berezko lengoaiatz jabetu beharra dagoela.

“Hitz gutxitan, ez daukagu ideiarik zer den hilekoa izatea, eta zehatzago esanda, zer den hilekoa gizarte honetan izatea”, dio Irustak. Hein horretan, hilekoa duen gorputza genero bateko edo besteko izan, aldeak nabari ditu: “Esaterako, hilekoaren aurreko fasean, amorratuaren edo inguruarekiko sentiberen egon zaitezkeenean, emakumea are gehiago estutzen da bere rolean ez delako sartzen haserretzea; aldiz, hilekoa duten gizon transexual ugari ez dira berdin estutzen, dena pikutara bidaltzeko gogoia eramangarriagoa baita genero maskulinoan”.

Mitif kazioak eta pribilegioak

Munduko hainbat kulturatan, lehen aldiz hilekoa duten emakumeei odola botatzeko beharra identifikatzen irakasten zaie, leku egokia bila dezaten isurtzeko. Mendebaldean ere, industrializazioa arte odol isurketa librearen ohiko praktika izan zela ikertu du Irustak. Klase altuenek bazuten odola xurgatzeko zer erabili, baina gehiengoak komunean edo ahal zuen lekuan isurtzen zuela dio.

Dena dela, horren dokumentazio faltaz eta beste kulturez egiten den mitifikazioaz ohartarazi du pedagogoak: “Guretzat kontu moderno edo askatzailea izan daitekeena beste lurralde batzuetan, Indian edo Afrikako herrialde askotan kasu, izugarria da, ez dutelako inolako ‘babes metodorik’ eta hilekoaren tabuak gure gizartean baino mila kilo gehiago pisatzen duelako”.

GEMMA TOMÀS, MANRESAKO CUP-EKO ZINEGOTZIA

“ALABARIK BADUT, BERE ZORU PELBIKOA LANTZEA NAHIKO NUKE”

“Emakume gazteek sexu osasunean bizitza hobea izateko” mozioa aurkeztu zuen Manresako (Katalunia) CUP alderdiak iragan udaberrian. Hedabide askok estu hartu zuten institutueta hilekoa batzeko alternatibez ere hitz egitearen proposamena, tartean gazteak odol isurketa libreaz formatzeko ideia jasotzen zuena.

Nola bizi izan zenuten iskanbila mediatikoa?

Mozioa ez zen onartu. Kataluniako parlamentuari zer bait egin zezan eskatzen zion ekimen bat baino ez zen onartu, hutsaren pareko. Pozik gaude hilekoaren heziketaz eztabaida piztu genuelako, baina tristeia izan zen oraindik zenbat tabu dauden ikustea.

Nola sortu zen proposamena?

Institutueta egoera ez dela aldatu baieztatu genuen, enpresek komertzializatutako aukerez baino ez dela hitz egiten, tailer afektibo sexualak baino kasik erabilera instrukzioak ematen direla. Horrela sortu zen. Diana Pinzón hezitzailearekin harremanetan jarri eta berak azaldu zizkigun ezagutzen ez genituen beste hainbat bide; itsas-belakiak, oihalezko konpresak eta isurketa librea. Honekin zur eta lur geratu ginen.

Nola landu duzue gaia?

Niretzat isurketa librea aurkikuntza izan zen. Askok ezer ez erabili eta lasai zikintzeko askatasunarekin lotzen dute, baina hori baino gehiago da. Pinzónek azaldu zigun berak 9 urteko haurrekin edo lehen hilekoak dituztenekin lantzen duela, gihar pelbikoa lantzeko ariketak egiten dituztela, gero hilekoa dutenean hobeto sentitu eta kontrolatzeko gai direla.

Badira tokiak zoru pelbikoaz kontzientzia hartu eta lantzeko?

Baietz esango nuke. Mozioa aurkeztu genuenean, Pinzónekin Denda Gorria deitzen diren emakumeen zirkuluetan parte hartu genuen, gure bizitzetaz hitz egiteko hilekoa ardatz hartuta. Ez du esan nahi dena horrela denik, baina bada irekitzea. Badira Denda Lilak ere, neskato gazteagoekin lantzeko, udan egiten dira 3-4 egunez. Egia esateko, horrek guztiak badu puntu mistiko bat, pertsonalki urruntzen nauena.

Mistizismo horrek atzera egin arren, baliteke halaber, gure gorputza ezagutzeko beharra aldarrikatzeak erakartzea?

Bai, erabat, feminista gisa, urrundu eta aldi berean hurbiltzen nau. Denda Gorritik asko gustatu zitzaidan gure gorputzarekin dugun harremanaz hitz egitea; nola sentitzen dugun gorputza, tenperatura hartzea edo fuxua begiratzea noiz gauden obulatzten jakiteko eta abar. Nire zikloa ezagutu eta aurretik nituen hainbat sentipen kokatu ditut. Hau maila mistikoago batera igarotzen denean, ez zait erosoa egiten. Baina, seguru asko batak bestea behar du.

Kapitalismoa obulutegietan daramagula salatu duzue.

Ez genuen jarri mozioan, hitzak zaindu beharragatik, baina bai. Kopa batek hamar urteraino iraun dezake eta konpresa zein tanpoiak etengabe kontsumitu behar dituzu. Begi-bistakoa da horren interes ekonomikoa, gure gorputzaren bueltan egiten den enpresa planifikazioa.

Mutilek ere hilekoaren inguruko tailerrak jasotzea azpimarratu zenuten mozioan.

Tailerrak sexuz bereiziak izan behar zirela argi genuen, neskak espazio erosoa izan zezaten nola sentitzen diren elkarbanatu eta profesional batekin zikloaren eraginez mintzatzeko. Aldi berean, garrantzitsutzat jotzen genuen mutilek ere formazioa jasotzea, gure gorputza eta zikloa haiek ere ezagutu eta ulermen eta errespetu loturak sortzeko. Baita indarkeria matxistaren neurri prebentibo gisa ere.

Beatriz Gimeno *Pikara Magazine* hedabidean zioen zuen proposamena ezagututa ohartu zela emakumeon etorkizunak odol isurketa librearen bidetik jo behar zuela, hori izan behar dela feministen bandera aurrerantzean. Zer diozu?

Baditugu aurretik beste kate batzuk, hau ez da orain emakume guztiontzako etxeko lana. Baina nik inoiz alabarik badut, bere zoru pelbikoa lantzea gustatuko litzaidake. Niri hilekoa jaitsi zitzaidanean amak esan zidan: “Hau jarri behar duzu, eta kito”. Hor hasten da kontua bide txarretik.



VII. Mariasun Landa Sariak Banaketa

Martxoak

11

Larunbata
12:00
Xenpelar Etxean

Clownclusioak Virginia Imazen eskutik, Oihulari Klown antzerki taldekoa

Antolatzailea: Berdintasunerako Kontseilua



Errenteriko
Berdintasunerako Kontseilua
Consejo de Igualdad
de Errenteria



» Industrializazioa baino lehen, klase altuenek bazuten odola xurgatzeko zer erabili, baina gehiengoak komunean edo ahal zuen lekuan isurtzen zuen

Odol isurketa libreak praktikotasuna eta “zikintzeko” aukerak larregi ez arduratzea behar ditu egungo gure gizartean, Irustaren ustetan. Inguru eta klase jakin batean, praktika posiblea izan daitekeela deritzo, nahiz eta kontu pribilegiatua izatera irits daitekeen: “Ni autonomia naiz eta etxean egiten dut lan, alboan daukat komuna eta badaukatzat hilekoaren fasean patxadaz nire gorputzarekin adiago egoteko aukera, baina gizonez betetako bulego batean lan egiten duen batentzat erokeria izan daitekeela ulertu dezaket”.

Horregatik, kopa eta oihalezko konpresen gisako metodo “alternatiboak” dakarten ezagutzari ematen dio garrantzia, odola bota baino batu egiten dutenak: “Ezagutza prozesuan dago perla, gero zure zoru pelbikoa kontrolatzeko gai zaren edo galtzak odolez beteta eraman nahi dituzun, norberaren erabakia da”.

(Auto)ezagutzak zabaltzen dituen aukerak

Esperimentatu zale direnentzat hilekoaren odolak potentzialtasun amaigabea duela gogoratu du Irustak; bada artera-



Kiran Gandhik Londresko maratonia egin zuen hilekoa biltzeko ezer jarri gabe. Nahita egin zuen, horrela erosoago sentituko zelako eta hilekoaren tabua haizatu nahi zuelako. Medioetan oihartzun handia izan zuen. Rupi Kaur artistarena da beheko irudia. Honela dio bere hausnarketan: “Odola isurtzen dugu eta haiek zikina dela uste dute, arreta bila gabiltzala, zama dela, gaixoa; arnastea bezain prozesu naturala ez balitz bezala”.

 SELMA HUXLEY BARKHAM	IKERKETA BEKA DEIALDIA Oinarriak eta informazioa: www.oñati.eus	 OÑATI dabilen herria
--	---	--

DIANA PINZÓN

"ONDO DATORKIDANEAN EGITEN DUT"

Diana Pinzónek hilekoaren gaineko kontzientzia lantzen egiten du lan, emakume gazteekin, oro har. Kolonbiarra jaiotzez, Katalunian bizi da egun eta urteak daramatza odol isurketaren bueltan lanean:

"Isurketa librea gutxi gorabehera 13 urte nituenean ezagutu nuen, haurdun gelditu nintzenean. Kolonbiako lagun batek hilekoaren kopa erakutsi zidan eta horrek eraman ninduen gaian sakontzera. Hilabeteak nire zikloaren detaile txikiak apuntatzen eta aztertzen aritu ostean, nire umetokiak odola isurtzeko egiten zituen kontrakzioak sentitzen hastea lortu nuen. Nire amak umetatik irakatsi zidan hilekoaren egunak bereziak direla, beraz, nire alaba hazten ari nintzen bitartean hileko egun lasaiak oparitu nizkion nire buruari, etxean nire umetokiari adi egonez ikasi nuen".

ko erabiltzen duenik, landareentzat ongarri edo kosmetikoetarako. "Baliteke askori nazka ematea, baina horretarako ere ona da kopa, adibidez, aurrejuzguak eta buruan sartu dizkiguten mitoak aurrez aurre jartzen dizkizulako".

Konpresa eta tanpoien merkatuak gorputzarekin konektatzeko baino, urruntzeko joera erakusten du gaur. *Tampax* tanpoi marka ezagunaren diseinuak izan duen bilakaeran nabari da; sinpleak eta behatzarekin sartzekoak izatetik, sofistikatuak eta norbera ukitu gabe aplikagailu batekin jartzekoak izatera igaro dira. Jada merkaturatzen hasi diren kulero xurgatzaileak ere ildo berean kokatu daitezke, hilekoa deserosotzat eta ezkutatu beharrekotzat jotzen dutenak.

Irustari beste elkarrizketa batean galdetu zioten: Ez al da izango orain odol isurketa librea itxurakeria kontu bat? Norbaiti otu dakiokela dio odolletan argazkia atera eta "begira, odol isurketa librea edo *freebleeding* egiten ari naiz" izenpean sarean zabaltzea. Horrek posizio batean jartzen gaituela dio, orain hau egiten ez baduzu, aske ez zarela di-

» **ERIKA IRUSTA:**


"Ezagutza prozesuan dago perla, gero zure zoru pelbikoa kontrolatzeko gai zaren edo galtzak odolez beteta eraman nahi dituzun, norberaren erabakia da"

rudi-eta. Ez dator bat bera: "Garrantzitsua presiorik ez jartzea da, norberak jakin-mina izan dezala bere gorputzarekiko eta joan dadila probatzen. Azkenean, kopan batutako odolari bi trago jotzeagatik ez zara libreago, bakoitzak fronte ezberdinetatik egin diezaioke aurre honi". ■



20. ^{aek}korrika IBILBIDEA

2017ko martxoaren 30etik apirilaren 9ra OTXANDIOTIK IRUÑERA



APIRIK 1 LARUNBATA

Kastejon00:20
Zintzoniko01:57
Tutera03:48
Arketas05:28
Balterra05:47
Alesbes07:25
Kaparrotsu09:11
Erriberri11:23
Tafalla12:02
Eslaba14:55
Oibar15:58
Zangotza16:54
Irunberri18:38
Domeñu19:28
Nabaskoze21:15
Burgi22:44
Erronkari23:53

MARTXOAK 30 OSTEGUNA

Otxandio17:00
Legutio17:40
Gasteiz19:02
Langraitz23:46

MARTXOAK 31 OSTIRALA

Argantzun00:32
Trebiñu01:30
Bernedo04:32
Kanpezu06:06
Zubielki08:13
Murieta08:59
Zirauki09:18
Mañeru11:28
Gares11:59
Mendigorri12:44
Artaxoa13:36
Larraza14:52
Lerin16:19
Karkar17:32
Lodosa18:25
Andosilla19:28
San Adrian19:54
Azagra21:18
Milagro22:29
Kadreira23:28

APIRIK 2 IGANDEA

Izaba00:37
Uztarrotze01:07
Itzaltzu02:49
Otsagi03:11
Abaurregaina04:49
Zirauki06:18
Auritzberri07:11
Auritz07:44
Orreaga08:01
Luzalde09:37
D. Garazi10:55
Bidarra12:58
Kanbo14:40
Ustaritze15:40
Baiona17:24
Angelu18:25
Biarritz19:04
D. Lohitzune21:38
Azkaine23:22

APIRIK 3 ASTELEHENA

Sara00:06
Senpere00:56
Itsasu02:38
Hazparne03:55
Donapaleu07:17
Maule09:55
Ainhize13:35
Baigorri16:35
Erratzu18:22
Elizondo19:19
Oronoz20:15
Doneztebe20:54
Ituren21:20
Zubias21:45
Saldias22:30
Orkietia23:58

APIRIK 4 ASTEARTEA

Auza00:30
Eltzaburu00:44
Jauntsarats01:34
Etxaleku02:07
Latasa02:42
Irurtzun03:14
Madotz04:01
Astiz04:29
Lekunberri05:01
Betelu06:10
Lizartza06:51

APIRIK 5 ASTEAZKENA

Orio00:42
Zarauz01:31
Zumaia02:54
Zestoa03:51
Azkoitia05:40
Elgoibar06:22
Deba08:35
Motriku09:29
Ondarru10:21
Markina11:19
Aulesti12:32
Lekeitio14:15
Ea14:54
Elantxobe15:59
Gernika17:30
Bermeo19:39
Bakio20:58
Mungia22:00

Tolosa07:47
Andoain09:59
Hernani11:04
Astigarraga11:44
Errenteria12:11
Oiztun13:03
Irun13:59
Hendaia15:01
Hondarribi16:06
Pasaia17:48
Donostia18:45
Lasarte22:41
Usurbil23:39

APIRIK 6 OSTEGUNA

Gorliz00:06
Sopela01:06
Areeta02:08
Leioa03:23
Erandio03:56
Barakaldo04:57
Portugalete06:32
Santurtzi06:55
Trapagaran07:46
Musikiz09:38
Sopuerta10:38
Zalla11:18
Balmaseda13:04
Artziniega14:27
Gordexola14:56
Sodupe15:47
Bilbo16:52
Sondika21:58
Derio22:26
Lezama23:10
Larrabetzu23:31

APIRIK 7 OSTIRALA

Lemoa00:49
Igorre01:19
Zeanuri02:16
Ubidea03:56
Gopegi05:08
Murgia05:50
Izarra06:42
Urduña07:38
Amurrio08:52
Aiara09:11
Amurrio10:01
Orozko11:50
Laudio12:45
Arrigorriaga14:17
Basauri14:44
Etxebarri15:31
Galdakao16:03
Zornotza16:59
Durango18:46
Elorrio20:15
Berriz21:00
Zaldibar21:29
Mallabia21:55
Ermua22:18
Eibar22:43
Soraluze23:36

APIRIK 8 LARUNBATA

Bergara00:02
Urretxu01:51
Zumarraga02:09
Beasain02:58
Ordizia03:55
Ikaztegieta04:49
Alegia05:08
Amezketza05:47
Zaldibia06:44
Ordizia07:09
Idiazabal08:23
Segura09:01
Zerain09:33
Legazpi10:38
Onati11:54
Arrasate12:50
Aretxabalet13:37
Laintz Gatzaga14:35
Ozaeta16:11
Dulantzi18:14
Agurain19:46
Araia21:05
Olazti22:26
Altsasu22:46
Bakaiku23:41

APIRIK 9 IGANDEA

Etxarri Ara00:16
Uhartea Ara01:30
Etxarren02:32
Erratz03:02
Erize03:39
Berriobeiti04:39
Berriozar04:46
Barañain05:37
Zizur06:03
Noain07:01
Mendillorri08:18
Sarriguren08:42
Uhartea09:01
Atarrabia09:19
Antsoain09:35
Iruñea09:46
Burlata10:03
Iruñea10:18
Amaiera12:30

BAT ZUK

Sudmineren meategi proiektua

Lurraren alde, urre goseari oldartu zaizkio herritarrak

Lapurdiko hamaika herri hartuko lituzkeen urre meatze bat egiteko xedea du Frantziako Sudmine konpainiak. Berantenik apirilean jakinen da Frantziako Ekonomia ministroak baimena onartuko dion. 2015eko agorrilean ukan zuten egitasmoaren berri herritar eta hautetsiek; orduz geroztik zabalduz eta indartuz doa urre meategiaren kontrako mugimendua.



Jenofa Berhokoirigoin

ARGAZKIAK: JEAN LOUIS PIQUET

Artzamendi, Xoldokogaña, Suhalmendi, Mondarrain... Ongi ezagutzen ditu Lapurdiko mendiak meatzaritzan dabilen Sudmine enpresa frantsesak. Lurpeko zein azaleko deskribapen zehatza kausitu dezakegu haien dokumentu ofiziale-tan. Arrazoia? Urre gose, Sara eta Kanbo arteko eremuari so dagoelako.

2015ean 126 kilometro koadroko eremu batean urrea bilatzeko eskusibotasuna dakarren baimen eskaera luzatu zion Sudminek Frantziako Estatuari. Herritarren eta hautetsien artean berriak lehenik harridura sortu bazuen, laster haserreak eta arrangurak zuten gaina hartu. Egitasmoaren "zentzugabekeria" plazaratu zuten otsailaren 11n Ezpeletan eginiko manifestazioan: "Tona bat lur suntsiturik hiruzpalau urre gramorentzat. Xehatua izandako lurpe horretarik zer geldituko zaigu? Alde batetik zulo bat eta bestetik hondakinak; betiko galduriko eremuak, laborantzarako ezin baliaturikoak".

Ainhua, Kanbo, Ezpeleta, Jatsu, Haltsu, Itsasu, Larresoro, Senpere, Sara, Zurai-de eta Uztaritze dira zuzenki hunkiak. Bertakoei egitasmoaren berririk eman gabe egin zuten baimen eskaera. "Nehor ez zen jakinean, maltzurki aritu ziren, ez zioten nehorri aipatu", dio Ezpeletako Belazkabieta etxaldeko Panpi Olai-zola laborariak. Zeharka etorri zitzairen berria: Britainiako Douar Didoull talde ekologistak eman zion horren berri ingurumenaren babesaren alde dabilen CADE elkarteari. Justuki, Britainian ere gordean planteaturiko meategi proiektu batez hunkiak izanki, sektoreari arreta handiz begiratzen jarri zirelako.

Berantenik apirilean jakinen da Frantziako Ekonomia Ministerioaren erantzuna. Anartean, bertakoek beren iritzia entzunarazteko aukera zuten urtarrilaren 30etik otsailaren 17ra eginiko kontsulta publikoan. Fase horri dagokionez ere, enpresaren maltzurkeriak kexu jarri du Martine Bouchet CADE elkarteko kidea:



"Kontsulta hor izatearen berri ez du eman Sudminek, ez guri, ez inori". Halarik ere, denbora murrizt hori erabili dute kontrakotasuna plazaratzeko. "Presazko gaia" dela dio Bouchetek, bilaketarako baime-nak ustiapenerakoa dakarrelako.

Ustiapena dakarren baimena

Ekonomia ministroak baietz esanez gero, esplotaziorako eskubidea luke enpresak. Frantziako meatze-kodeak dakar ahalmen hori. Finean, legedia meatze-industriaren alde doala deitoratu ohi dute Frantziako eta Ipar Euskal Herriko ekologistek.

Bilera publikoen, 4.400 izenpeaz gora bilduta dituen eskariaren, elkarretaratzeen eta manifestazioen bidez, aurkakotasuna karrikan da. Hautetsien esparrutik ere entzuten da ezezko biribila: meategi xedeaz hunkiriko herri guztietako auzapezak, Euskal Elkargoko lehendakaria, Akitania Berria eskualdeko kontseilua, hainbat parlamentari,



Laborantza ministroa eta Ingurumen ministroa, guztiak dira kontra. “Aurka naiz, azpiz gora jarriko lituzkeelako gure ingurumena eta ekonomia”, dio Sylviane Alaix diputatuak. Ekonomia ministroari hitzordu bat eskatu berri dio: “Zifren bidez hitz egin behar zaio Ekonomia ministroari. Kalkuluak egin ditut eta errango diot argiki: 763 lanpostu lirakeke arriskuan”.

Urre meatzeak ondorioztatuko lituzkeen kutsadura eta laborantza sektorearen kaltetzea dira haserrearen oinarriak. Kutsadura “ezin saihesturikoa” litzatekeela dio Martine Bouchetek. Lurra mugituz artseniko, mineral azido eta gisa bereko substantziak askatzen direlako. Estali gabeko meatzea izan ki, euriaren ibilbideari jarraituz, lur eta uretan barna hedatuko litzateke kutsadura: “Meatzearen inguruko perimetro guztia da mehatxatua, lurpeko ur geruzak, Errobi eta Urdazuri ibaiak...”.

Bestelako mezua plazaratu du Sud-

“Tona bat lur suntsiturik hiruzpalau urre gramorentzat. Lurpe horretarik zer geldituko zaigu? Zulo bat eta hondakinak”

minek. “Tamaina txikiko” urre hobia litzateke, zeinean “egin-molde mekaniko sinple batzuei esker” urrea “errazki” eskuratzen ahalko litzatekeen, ingurumenaren gain “eragin ahula” ukanez. Guzti hori, egitasmo “erdi industrial eta parte-hartzaile” baten bidez segurtatuz.

Azpijokoak, irudia garbitzeko

Géoplusenvironnement ikerketa bulegoak egin txostenak ere segurtatzen du ura, airea eta ingurumenaren gabeko

inpaktuak “oso ahulak” lirakekeela. Baina independente gisa aurkezturiko bulego horren osaketari begiratuz gero, ohartu gaitzake zuzendari daukala Sudmine enpresako presidente ere baden Christian Vallier jauna.

Hiru fasek osaturiko bilaketa dute marrazturik. Lehen urtean, zulaketarik gabeko ikerketak egingen lituzkete (antzinako meategien azterketa, uraren ikerketa, eta abar). Eraitza positiboak ukanez gero, arroken ikerketa egingen lukete beste sei hilabetez, ondotik, urre aztarna interesgarriak kausitzekotan, azterketa zehatzagoak eta suntsikorragoak egiteko beste urte batez. Diotenez, lehen bi faseek ez dute inolako inpakturik ukanen ingurumenaren gain. “Gure hiztegiak jabetu eta birmoldatu egin dute. Faltsukeria da, meategi batek hiru eta hamar urteren artean irauten du, ezin du iraunkorra izan, aldiz ondorioztatu hondakinek bai!”, Martine Boucheten hitzetan.



Otsailaren 11n Ezpeletan egin zuten manifestazioa, urre meategi egitasmoaren "zentsugabekeria" plazaratzeko. Hautetsi ugari ere proiektuaren aurka agertu dira, bi ministro barne.

Nahiz eta Sudminek erran bigarren mailako urrearen ustiapena izanen dela soilik –lurrean zein uretan diren urre jalkinak–, lehen mailakoak –arroken barnean direnak– ere izateaz beldur dira aurkariak. Hain zuzen, Sudmineren txosten ofizial batean ondokoa idatzirik dutelako: "Gerora, Sudminek baimenaren berritzea edota eremuaren zabaltzea galdetzen ahalko luke, lehen mailako urreari buruzko seinaleetan arreta jartzeko". Horrela balitz, ingurumenaren suntsiketa areagotuko litzateke, arroka barneko urrearen ustiapena askoz kutsakorragoa delako.

Ehunka etxalde arriskuan

"Lurrak eta urak izorratzeaz gain, ingurumenaren errespetuan oinarrituriko irudia ere kaltetuko digute", dio haserre Panpi Olaizolak. Zenbaki zehatzik ez ukan arren,

» 500 bat etxalde hunkituko ditu meategiak, horregatik laborantza sektoreko eragile andanak du desadostasuna adierazirik

"ehunka, eta segur dena 500 bat etxalde" hunkituko ditu meategiak. Hori dela eta, laborantzaren sektoreko eragile andana batek du desadostasuna adierazirik: Osasau Irati sor-markaren egiturak, Ezpeletako Biperraren ekoizleen sindikatuak, Itsasuko gereziaren ekoizleek osatu Xapata elkarteak, Euskal Herriko Laborantza Ganberak, ELB sindikatuak, laborantza ekologikoaren alde dabilen Biharko Lu-

rraren Elkarateak, Idoki sor-markak, eta abar. Ezpeletako Biperra sor-markarako balio duen kasik eremu guztia da meatzearen eremuan; orotara, 200 ekoizle. Tokiko ekonomiaren alor emankorra den produkzio horren "hondamena" litzatekeela diote.

Beste kezken artean dute lurren desjabetzea ere. Ikerketa faserako jabeen baimena behar badute, ustiaketarako ez. Hain zuzen, lur azpiak estatuarenak izan ki, lurrak hartzen ahalko dituzte, jabeen adostasunik gabe.

Meategien sustapena

Egitasmo berri hori Frantziako Gobernuak finkatu helburuen artean kokatu behar dela dio Bouchetek. Hau da, 2012an aurkeztu zuen Arnaud Montebourg garaiko Ekonomia ministroak meatzeen ustiaketaren garapenaren beharra. 2016an Emmanuel Macron Ekonomia ministroak berretsi zuena: "Gure dependentzia txikitu nahi badugu, meatze-estrategia behar dugu; segurtapena daukat posible dela ingurumenari buruzko arauak errespetatuko dituen meatze-aktibitatea".

Ingurumenaren babesaren erronkarekin errimatzeko xedez, urtarrilean aurkeztu zuten meatze-kodearen erreforma Legebiltzarrean. Helburuarekin bat egin arren, begi txarrez ikusi dute ekologistek testu proposamena. Besteak beste, bilaketa egiteko eskusibotasuna dakarren baimenarekin ustiaketa eskubidea ia automatikoa delako kode berrian ere.

Azken urteetan urre bilaketarako hainbat baimen banatu ditu Frantziako Gobernuak. Alta, gaurko egunean ez da gehiago urre meatzerik, azkena 2004an hetsi zutelako. Salsigne herrian zegoen, Frantziako gune kutsaturikoenen artean sailkatutako eremuan. ■

4. finalaurrekoa

LEGUTIO Kultur etxean

MARTXOAK 4 larunbata 17:30

Gabrielak: Nieves del Álamo G1

Manex Agirre Arriolabengoa

Jon R. de Pineda Lekuona

Felipe Zelaleta Txurruka

Iker Agirre Urbaren

Peru Abarrategi Samionandia

Iñaki Vinaspre Simon

Arabako Bertsolari Txapelketa 2017

www.bertsotzale.eus/araba

Argia

LABORAL

Vital gizarte ekintza

arteapan

ARGIA

Arabako kazetaritza euskalduna babesteko...
jar ezazu zure alea,
jaso ezazu zure alea



Informazio gehiago:
harpidetza@alea.eus
945 71 60 09

www.alea.eus/harpidetzak

BURUKO GAITZAK

OSASUN ARLOTIK HARAGOKO ESKU-HARTZEA BEHAR DUEN ARAZOA

“Zein kolore du buruko gaixotasunak?” galdetu ziguten. “Txuria”, erantzun nuen, gaiari buruzko ezagutza txikia, datu gutxi eta aurreiritzi asko nituelakoan. Ortzadarra atera zen, ordea, tailer hartan landutakoaren ostean.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

@xorginkeiak

Buruko gaitzak dituzten pertsonekin eta haien hurbilekoekin egiten dute lan Oarsoaldeko (Gipuzkoa) Arraztalo eta Aldura elkarteek. Pasa den abenduan, herritarrei zuzenduriko tailer irekiak antolatu zituzten hainbat herritan, eta haietako batean parte hartu genuen, Trintxerpen egindakoan. Tailer horiek ez zituen aditu, psikologo, mediku edo gizarte-langile batek gidatu, ohikoa litzatekeen gisan. Egoera gertutik bizi edota gaiaz interesa duenari eman zioten hitza. “Hizlari eta entzulearen papearak hautsi nahi genituen, guztiak boro-bolean eseri eta elkarrekin hitz egiteko helburuarekin. Modu horizontal batean, aurrez aurreko elkarrizketak nahi genituen, gaixotasun psikikoa duten pertsonen arreta lehenatasun bihurtuz, betiere, bakoitzak gure esparruan betebeharrak dugula argi izanda”, azaldu digute elkar-teotako kideek.

Osasunaren esparrutik harago begiratzen dute tailerraren antolatzaileek, gizarte zabalean eragin behar dela argi baitute. Zentzu horretan, hutsuneak aurkitu eta datuak biltzen ari dira. Diotenez lan handia dago egiteke, ingurukoekin harremanak sendotzera bidean, esaterako.

Norena da ardura?

Gaixotasun hauekiko eta pairatzen dituzten pertsonetako aurreiritziek integrazio-prozesua zailtzen dutela diote tailerraren sustatzaileek, eta beharrezkotzat jotzen dute lanketa soziala: “Gaixotasun psikikoa arazo soziala da. Osasuna kontuan hartzea garrantzitsua da, baina testuingurua ere bai. Gaixotasun hauek pertsonari eragiten dizkieten ondorioak gainditzeko ez dugu nahikoa baliabiderik”.

Gaixotasuna duten pertsonen, senideen, sendagileen, gizarte langileen, politikarien eta herritarrek parte hartu dute Arraztalo eta Aldura elkartearen tailerretan, 91 lagunek orotara. Hala ere, eta aurretik hori gertatuko zela espero zuten arren, gonbidatuak zeuden politikarien laurdena ere ez zen bertaratu: “Haiena izan da hutsune nabarmena. Iritzia eman eta errealitate bati aurre egitea zaila egingo zaie, agian. Gure helburua elkarrekin lan egitea da, ez eskean aritzea”, diote: “Zein politika egingo ditugu politika horien onuradunak ezagutzen ez baditugu? Gaur egun gaixotasun hauek gainditu daitezkeela ez daukagu barneratuta, eta ondorioz azaleko politikak ditugu”. Adibide gisa, salatu dute ia 2.000 direla Errenterriko osasun mentaleko zentrora

doazenak, eta haiek artatzeko hiru psikiatra besterik ez daudela.

Aipatu digute hainbat eragilek esku hartzen duela, Osakidetza osasun arloan egiten du lan, Aldundiak eta udalak gizarte politikez arduratzen dira, elkarrekin programazioak aurkezten dituzte, enpresa pribatuek egoitzak eta lanpostuak eskaintzen dituzte... “Baina ez badugu norabide berean tira egiten jai dugu”, kexu dira.

“Gizarte osoari dagokion arazoa izanik, ezin dio guztiari osasun sistemak soilik erantzun”, diote: “Behin gaixotasunaren fase larrienak pasata, psikiatrak alta ematen dionean, ia zerotik hasi behar du pertsona horrek, gaixotasunak utzitako ondorioekin: isolamendua, etsipena, bizitza proiektua etetea, langabezia, arreta mantentzeko zailtasuna eta abar. Nor dago prest horri erantzuteko?”.

Erantzunetan hori sumatzen dute faltan bi elkarrekin dagoenak. Botikak badi-ra, eta gero eta terapia kognitibo gehiago, baina lan eta gizarte integrazio esparruak murrizten dira. Hori guztia lanbideak kudeatu beharko lukeela pentsatzen dute, egiten duten eskaintza urria dela aditzera emanez. Izan ere, Gipuzkoan buruko gaitza duten gehienak langabezian daude.



Lehenik, onarpena

Tailerra egin zen gelako hormetan testigantza laburrak irakurri ahal izan genituen hasieran. Anonimoak ziren guztiak, gaixotasuna duten pertsonen esandakoak: “Oraindik kostatzen da egiten zait ispilu aurrean jartzea”. “Estigmarekin kalte handia egiten diguzue, gutxiago garelako pentsarazten baitiguzue. Horrela guk ere gure burua gutxies-ten dugu”. “Gaixotasuna onartu behar da lehenik, ondoren pausoak eman ahal izateko. Gizarteak onartzen ez badu zailagoa da lehen urratsa ematea”. “Beldurra digu jendeak, biolentoak garelako uste dute, ezin dela gurekin egon, bereziak garelako, zoroak. Gu pertsona normalak gara baina”.

“Arazo hau dagoela denok dakigu”, azaldu digute, “baina dimentsio guztietan aurre egiteko, lanketa kolektiboa egin behar da”. Familia, osasuna, lana eta aisialdia aipatu dituzte. “Baina nor kezkatzen da gaiaz?”.

Trintxerpeko (Pasaia) tailerrean hamabost pertsona inguru bildu ginen. Gehienek gaixotasuna euren larrian edo hurbilekoengan bizi dute. Guk, aitzitik, aurreiritziak eta ezjakintasuna genituen ezaugarri. Ezjakintasun hori izan genuen hain justu hizpide, baita lotsa, estigma, judizioak eta beldurra ere, besteak beste. Gaixotasuna bera deskribatzeko hitzik aurkitzen ez genuenez, koloreekin deskribatu genuen, gaixotasuna duten metaforak baliatzen dituzten moduan. Beltza, gaitza iluna delakoan; grisa, argitasunerantz bideratzen delako; morea, indartsua delakoan; berdea, itxaropena islatzeko... Eta guk, txuria, ezjakintasunaren ikur. Dena den, konturatu ginen uste baina gehiago dakigula gaiaz.

» ARRAZTALO ETA ALDURA ELKARTEAK:

“Eurek uste baino gauza gehiago egiteko gai dira gaixo psikikoak. Haien autoestimua garatzea funtsezkoa da”

Autoestimua elikatzea xede

Finean, gaixotasun gisa ez ulertu, ikusi edo onartzeak ikusezin bihurtzen duela jabetu gara. “Geronek ere ez dakigu gaixotasunaz ari garen, nahasmenduaz edo zertaz”, diote elkarteetako kideek: “Gauza asko dago egiteke: sendagileekin eta beste senideekin hitz egin, informatu, gaixotasuna duen pertsonarengana hurbildu eta erantzun kolektiboa eman”.

Lehen, down sindromeak lotsa eta bazterkeria zekarren ingurukoen artera eta pixkanaka onartzen ari da. Elkarteok itxaropena dute buruko gaixotasunak sortzen duen estigma pixkanaka deseraikitzen joango dela. Izan ere, etengabe epaitu, seinatu, ezkutatu eta baztertzeko dituzte giza-arteak. “Eurek uste baino gauza gehiago egiteko gai dira. Askotan gakoetako bat autoestimua garatzea izaten da, hazi egiten baitira horrela”, diote. “Ez gaitezen konplize izan”.

Bestalde, gaixotasun psikikoen jatorriari buruz hitz egiten hastea “arriskutsua” dela uste dute elkarteetako kideek. “Genetika aipatzen da, ingurunea ere bai”.

Osasunaren esparrutik harago begiratzen dute Trintxerperko tailerraren antolatzaile Arrazalo eta Aldura elkarteek, gizarte zabalerari eragitea helburu. Diotenez lan handia dago egiteke, ingurukoekin harremanak sendotzera bidean, esaterako. Tailerrean modu horizontalean aritu dira lanean, parte-hartzaileak borobilean eserita, buruko gaitzak dituzten pertsonen arreta lehentasun bihurtuz.

Errealitate desberdinen, momentuen eta pertsonen arabera garatu edo azalduko da gaixotasun bat edo beste. Modu batean edo bestean biziko dituenak norberak.

Geroz eta gaixo gehiago daudela esan digute, nahiz eta haietako asko ez ditugun gaixoak bailiran tratatzen, pentsatzen dugulako euren portaeraren arazoia besteren bat dela. Depresioa eta horrelako gaixotasunak normalizatzen ari direla gaineratu dute. “Osasun fisikoa bezala, buruko osasuna zaindu egin behar dugu, bizitzako zailtasunei aurre egiteko baliabideak garatu eta gure burua indartu. Zaila da, norberak egin behar duelako hausnarketa hori”.

Horrez gain, gizarte ereduak hau guztia kutsatzen duela eman dute aditzera: adin tarteak planifikatuta egoteak, gugandik zerbait espero izateak, presioak, estresak, lan erritmoak, erantzukizunak, bizi proiekturik ez izateak, lehiakortasunak, tentsioak, aurrez ezarritako bidetik irteera arazotzat hartzeak eta abar.

Neurri batean, gizarteak berak gaixotzen gaituela pentsatzera eraman gaituzte tailerrean bizitakoak. Aurreiritziak apurtu, ikuspuntua zabaltzeko eta gure lan-esparruak eta betebeharrak zeintzuk diren bilatuz amaitu genuen saioa. Dakigunez, euriak eta eguzkiak batera osatzen dute ortzadarra. ■



MOYUA
HILETA ZERBITZUAK
Zure momentu zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Ondutua Gotzaina kalea, 27 - Oñati

Euskal hedabideek ituna lortzeko bidea ireki dute

Euskal hedabideak, itun bila jardunaldietan sektoreak aitortza eta egonkortasuna eskatu zituen, eta administrazioarekin adostu nahi duen kontzertazio ereduaz gogoeta egin du. Jardunaldiak Hekimen Euskal Hedabideen Elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatu zituzten otsailaren 22an, Bilbon.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: EUSKALTZAINDIA

Jardunaldien hasieran, Libe Mimenza Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzaileak euskal hedabideen kartografia egin zuen. Ondoren, Deustuko Unibertsitateko Jone Goirigolzarri eta Xabier Landabidea irakasleek euskal hedabideak XXI. mendean kokatu eta haien garrantzia azaldu zuten. Lehenak ikuspegi soziolinguistikoa eman zuen eta bigarrenak ikuspegi komunikatiboa.

Zergatik ituna?

Alberto Barandiaran Hekimeneko zuzendariak "Esparru berria garai berrirako" hitz-hartzea egin zuen eta euskal hedabideen eta administrazioaren arteko itun bidezko finantzazio eredu mahai gainean jarri zuen. Itunaren bidean, jardunaldia "hurrengo geltokia" izatea espero zuela adierazi zuen. Berak bota zituen galdera eta erantzuna: "Ituna zergatik? Lankidetzat bilatu eta sustatu nahi dugulako". Barandiaranek hizkuntzaren normalizazioan hedabideak oinarritzatkoak direla adierazi zuen, hedabiderik gabe euskarak ez duela aurrera egingo. Sektoreak aitortza behar du, kultura, hizkuntza, euskal komunitatea erdigunean jartzen dituelako, eta kontzientzia nazionala bultzatzen duelako. Legea gogorarazi zuen, alegia, EAEko herritarren eskubidea dela euskaraz informazioa jasotzea, euskal hedabideak kontsumitzea. Babes

legal adostua eta iraunkorra aldarrikatu zituen, eta ondoko galdera bota: "Anakronismoa, bitxikeria, ote da, bada, eskatzen duguna? Europan ugari dira laguntzak informazio-pluraltasuna bermatu ahal izateko. Hedabide pluralak babesten dituzte uniformetasunaren kontra".

Sektorearentzat egoera ideala autofinantzazioa izango balitz ere, administrazioari etengabeko desoreka zuzentzea dagokiola esan zuen eta horretarako garai proposa dela. Batetik, kontsentsuaren garaia delako, eta bestetik, EITBri buruzko eztabaida hastera doala baliatu daitekeelako. Hedabideen bi ereduengurua eztabaidatzeko une egokia dela uste du Barandiaranek. Euskal hedabideei aitortza egitea itun baterako bidea irekitzea izan daiteke, bere ustez. Itun hori izan daiteke lege bat, kontzertazio eredu bat edo izan daiteke kontratu-programa. Elkarlanerako deia egin zuen: "Elkarlanean aritzeko borondatea behar da. Euskal Hedabideen Behategia tresna egokia izan daiteke. Euskal Herriko hiru unibertsitatek eta sektoreak bat egin dute proiektuan. Administrazioa falta zaigu".

"Itunak nolakoa beharko lukeen hitz egiten hasi behar da"

Jardunaldietan Eusko Jaurlaritzako ordezkari gisa Estibalitz Alkorta Euskaraz Sustatzeko zuzendariak hartu zuen

parte. Haren iritziz, ituna posible da, baldintza batzuk betetzen badira. Baldintza horietako bat da abiapuntu beretik hastea, hau da, orain arte egin den ibilbidea aitortzea eta gaur egun daukagun eskaintza kontuan hartzea. Iparra non dagoen adostuta, urratsak ematen has daitekeela adierazi zuen: "Orain zer daukagu egiteko? Mamiaz hitz egiten hastea, itunak nolakoa izan beharko lukeen eta abar". Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako sailburuordearen hitzak bere egin zituen: "Adostasunean eta elkarlanean oinarritu behar dugu, amildegi batzuk zeharkatu nahi ditugu, mesfidantzak eta gaizki-ulertuak gainditu nahi ditugu. Txalupan, denok, arraunean gogor egin behar dugu. Gu txaluparen lema gobernatzeko prest gaude". Alkortaren esanetan, itunak itun, bi helburu garbi daude: sektoreak konpetitiboa izan behar du eta merkaturia irabazi behar du.

Hiru kontzertazio eredu

Itun bidezko finantzazioa baliatzen duten hiru esperientzia kontatu zituzten jardunaldietan. Etsenplu horietako bat Ikastolen Elkartearena izan zen. Jose Luis Sukiak itunaz zer ulertzen den azaldu zuen. Haren arabera, administrazioak irizten dio halako zerbitzu ezin duela eskaini, eta beraz, hark eskaini



Euskaltzaindiakoak, kargu politikoak, euskal hedabideetako ordezkariak eta irakasleak bildu ziren Bilbon.

ezin duena beste erakunde baten esku uzten du. Zerbitzua eskaintzera behartuta dago (Hezkuntzaren kasuan), baina berak ezin duenez bete, itunaren bidez egiten du. Administrazioak zerbitzua osorik sostengatu behar du dirutan, baina praktikan ez da hala gertatzen, Sukiaren ustez. Ikastolen Elkartearen kasuan, administrazioak %80 finantzatzen du eta gurasoek %20 hartzen dute beren gain. Itunaz gain finantzazio eredu gehiago aipatu zituen, ez hainbeste erabiliak: kontratu programak, deialdiak ('kafea denentzat' moduan definitu zituen) eta hitzarmenak.

Euskaltegien eredua

Euskaltegi homologatuen ereduaz Iñaki Urquijo AEK-ko ordezkariak hitz egin zuen. AEK-k duen itunean, ikasgelak dira oinarri, alegia eskola orduak, eta ordu kopuru horiek ordaintzen ditu administrazioak. Alabaina, ez da urtero

urrian eskola ordu kopurua aztertzen eta horren arabera diru-laguntza ezartzen, batez besteko bat dute ezarria. Horren arabera, urte batzuetan hobeto eta beste batzuetan okerrago aterako zaie euskaltegiei. Eman dezagun urtean 1.000 eskola ordu laguntzen direla diruz. Bada, urte batean 900 eskola ordu badira (ikasle gutxiago matrikulatu delako) diru sarrera ez da aldatzen eta berdin gertatzen da 900 beharrean 1.100 ordu ematen badira. Lehenengoan marjinak euskaltegiaren alde jotzen du, eta bigarrengoan berriz, euskaltegiak berak bere diru sarrerekin egin beharko dio aurre aldeari, ikasleei ez baitaie ordainarazten alde hori. AEK-ko ordezkariak ikastolen itun bidezko finantzaketa portzentajea euskaltegiarentzat ere helburu dela adierazi zuen. Orain %70 inguruan dabilta eta %10 igotzea litzateke helburua, ordainketa ikasleen bizkar gera ez dadin.

Datu esanguratsua eman zuen Urquijok: gaur egun eskola ordua 37 eurotan dago AEKn eta euskaltegi publikoen parrerara iristeko 74ra igo beharko litzateke zifra hori.

Frantziako irratien ituna

Titto Betbeder Euskal Irratietako arduradunak Frantziako Estatuan duela 35 urtez geroztik ezarria den ereduaz azaldu zuen. European salbuespena da. Elkarte irratia edo irratia librearekin sartzen dira eredu horretan, publizitate komertzial bidez diru sartzeen %20 baino gutxiago egiten dutenak. Irratien funtzionamendurako dirua emateko bi irizpide jarraitzen ditu. Batetik, diru sartzearen arabera egiten da. Adibidez, irratia baten diru sartzeak 35.000 eurokoak badira automatikoki diru-laguntza izango da 26.000 eurokoa. Matematikoa da irizpidea. Bestetik, irratia jardueraren neurritan da, atal selektiboa edo kualitatiboa litzateke. Zazpi irizpide hartzen dira kontuan eta horietatik hiru dira nagusiak: kultur hezkuntza, integrazioa eta tokiko garapena. Hiru arloetan irratia bidez egindako lana justifikatu behar da urtero txostena aurkeztuta eta puntuak lortzen dira horrela. Puntuazioa eztabaidatu eta laguntzak finkatzeko batzorde berezi bat dago. Gobernuak eta irratia alorreko ordezkariak osatzen dute batzordea. 2016an, Gure Irratiak 30.000 euro lortu zituen, aurrekontuaren %30-40. Funtzionamendurako laguntzez gain, inbertsioetarako 18.000 euroko eskaera egiteko eskubidea dute irratiek. ■



Bilbon euskaraz

www.bilbaoeuskaraz.eus



**IKUSI
ETA
IKASI**

www.ikusietaikasi.eus



harrapa zank 2017

Harrapatu zure aukera!

Eman izena www.harrapazank.eus webgunean

www.harrapazank.eus

LITERATURA^{ETA}
MUSIKA^{EUSKARAZ}

LINBOTARREN ITZALAK ATE OSTEAN



ASIER SERRANO

MARTXOAK
IGANDEA

12

19:00tan

www.pagoa.eus

2017

PAGOA

KAFE ANTZOKIA

OIARTZUN

A: 6€ T: 8€

Oiartzun: Amazkar, Elorsoro,

Pagoa Kafe Antzokia

Donostia: Donosti Rock

Erreterria: Arkaitza Taberna

Internet: pagoa.eus, ticketea.com, Colectivia,
Mauka, oferplan eta www.ticket.kutxabank.es



Pagoa Kafe Antzokia:
Irekia
ostirala, larunbata

17.00tik - 06:00ra
Erreserbak: 619 421 153
@PagoaAretoa
kafeantzokia@pagoa.eus

Pagoaldea 7, Ergoien auzoa
20180 · Oiartzun. EH.



berria

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

ARGIA

PAGOA

Euskal Herri berriko
artisau garagardoa



ESPAZIORIK EZ EMAKUMEENTZAT



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Cañaveral lurmuturra (AEB), 1962ko otsailaren 20a. *Mercury-Atlas-6* suziria jaurti zuten espaziora, John Glenn astronauta *Friendship 7* kapsularen barruan zeramana. Lurraren inguruan hiru orbita egin zituen eta, hala, balentria lortzen zuen lehen estatubatuarra izan zen; Yuri Gagarin eta Gherman Titov sobietarrek aurreko urtean lortu zuten.

Hidden Figures filmak kontatu berri digu hainbat emakume beltzen kalkuluak funtsezkoak izan zirela misioaren arrakastan. Baina ez ziren espazioko lehen ezkutuan aritutako emakume bakarrak izan. NASA 1959an hasi zen zazpi gizonezko trebatzen astronauta izateko; Mercury Seven esan zieten. Baina programako ikerlari William Randolph Lovelace II.ak pentsatu zuen emakumeak egokia goak izan zitezkeela espaziora joateko: txikiagoak eta arinagoak izanik, erregai gutxiago beharko zen haiek espaziora bidaltzeko; espazioan egonaldi luzeak ere aurreikusten zituzten, eta emakumeek gutxiago jan ohi dute.

Hala, FLAT (Lehen Emakumezko Astronauta Trebatuak) programa jarri zen abian, estraofizialki (gerora Mercury 13 esan zitzairen, baina ez ziren sekula NASAko Mercury programaren parte izan). Hegaldietan 1.000 ordutik gorako esperientzia zuten hogeitaz emakumezko piloturi egin zizkieten zazpi gizonezkoei



Jerrie Cobb pilotua Mercury proiektuko espazio-kapsularen alboan, eta astronauta izateko proba fisiko eta medikoak egiten. Denak gainditu zituen, FLAT programako beste emakume batzuek bezala. Baina ez zieten espaziora joateko aukerarik eman.

egindako proba berak eta hamahiruk gainditu zituzten: Myrtle Cagle, Jerrie Cobb, Janet Dietrich, Marion Dietrich, Wally Funk, Sarah Gorelick, Jane "Janey" Hart, Jean Hixson, Rhea Hurrle, Gene Nora Stumbough, Irene Leverton, Jerri Sloan eta Bernice Steadman.

1962ko uztailan emakumeek Mercury programan ofizialki sartzeko esakera egin zuten. Erantzuna NASAko ordezkari George Low-ek eta John Glenn eta Scott Carpenter astronautek eman zuten agerraldi batean: emakumeek ez zituzten astronauta izateko derrigorrezko baldintzak betetzen.



NASA

Ingeniaritza titulua eta jet militarretako pilotu gradua behar zuten, baina garai hartan emakumeek debekatuta zeukaten Aire Armadako eskoletan ikastea, eta hegaldi zibiletako esperientziak ez ziren ezertarako balio izan.

John Glennek berak esan zuen: "Ere-mu honetan emakumerik ez izatea gure ordena sozialaren ispilu da". Eta ingeniari-tza titulurik izan gabe ere, bera programan onartu zutela aitortu zuen. Hurrengo urtean Valentina Tereshkova sobietarra izan zen espaziora joan zen lehen emakumea. ■



Ez zen MacDonald anaien asmoa

Richard eta Maurice MacDonald anaiek 1948an zabaldu zuten beren abizena zuen lehen hanburgesa jatetxea, San Bernardinon, Kalifornian (argazkian). Familiako negozioak arrakasta izan zuen berehala, eta 1953an frankizia bihurtu zen. Anaiei asmoa aberastea zen, jakina, baina ez zuten katea asko zabaldu nahi, jatetxe kopuru mugatua-

rekin moldatzeko asmoa zuten. Hala ere, 1961ean ez zioten Ray Kroc-en eskaintzari muzin egin: MacDonald's jatetxeak saldu zizkieten garai hartako 2,7 milioi dolarren truke.

Gaur egun, zabor-janaren paradigma 119 herrialdetan dago zabalduta eta 68 milioi bezero inguru hartzen ditu egunerok. ■

Piku-hostoa




Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Udako oporrak antolatzeko beste proposamen batekin nator. Ekainetik irail erdira arteko tarte horretan goza daitekeen aukera bat. Mediterraneoaren ekialdeko bazterrean, Ekialde Hurbila deitzen dugun horretan, duela 2.000 urte inguru ziren landareen bilduma bat ezagutzeko aukera.

Garai hartako jendearen eta herrien historiaren berri izan eta nolako bizimodua zuten erakusten du landaretegi honek: elikadura, osasuna, espiritualitatea eta errituak... Baita janzkera ere, adibidez, larrubizi ez azaltzeko pikosto batez nola estaltzen ziren.

Liburu baten aipamenei jarraituz eraiki zuten, eta orduko ehundik gora landare aurki daitezke bertan. Tartean



Rodef Shalom Biblical Botanical Garden, Pennsylvanian (AEB).

DADEROT

dira ezagun zaizkigun olibondoa (*Olea europaea*), mahatsa (*Vitis vinifera*), pikondoa (*Ficus carica*), mingranondoa (*Punica granatum*), datilondoa (*Phoenix dactylifera*), papiroa (*Cyperus papyrus*), ostargi-belar arrunta (*Iris germanica*), igebelarra (*Nymphaea sp.*), hemerokaila (*Hemerocallis sp.*) etab. Badira ere ustez galduta zeuden landareak mirakuluz-edo berreskuratu dituztenak, kaparrondo bat (*Capparis spinosa*) adibidez.

Landare bakoitzak bere etiketan ditu izen zientifikoa, aipatutako liburuan dakarren izena eta liburuko zein ataletan aipatzen den.

Liburua, pentsatuko duzun bezala, Bibliako Itun Zaharra da. Landaretegia Rodef Shalom Biblical Botanical Garden da, eta Ameriketako Estatu Batuetan dago, Pennsylvaniako Pittsburghen. Sarrera doakoa da, baina dohaintzak eskertzen dira. ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba. Arroza daukat balkoiko loreontzi batean. Pentsatuta neukan martxoan kimatzea, baina ikusi dut adaxka berriak ateratzen hasi zaizkiola. Komeni da kimatzea? Eta nola kimatzen da arroza?

Arantza Arrue (Andoain)

Kaixo Arantza. Arrosondo edo arroza landare mota asko dago: igokariak, loraldi luzekoak, urtean behin besterik loratzen ez direnak... Lorontzian baduzu, arrosondo mota eta loraldi luzekoa izango dela pentsatzen dut. Horiek martxoan inautesteko esaten dut, baina orokorrean.



Garrantzitsuena kimu berriak azaltzen direnean egitea da. Horrek izerdi berria mugitu dela adierazten du. Izerdi horrek di-da batean itxiko ditu inausketan egingo dizkiozun zauriak.

Inausketa egitea komeni da arrosondoa lahar-edo igokaria delako (kiwia, mahatsa, etab. bezala). Arrosondo motz horiek jeneralean txertoa izaten dute oinean. Txerto horren gaineratik 2-4 adar indartsu izatea komeni da. Horiek moztan dira, motz, asko jota arrabete luze utzita. Horrela arrosondoa beti gaztea, berrituta, indarrean izango da, eta loreak ere sendoagoak izango dira.

Lan hori bezain garrantzitsua da ongarritzea. Loraldi oparoa nahi baduzu, eman jaten. Eman eta eman. Ongarri organikoa onena: simaurra, luarra edo konposta. Eta ongarriketa udaberrian eta udan errepikatu.

SUSTRAIAK HABITAT DESIGN

Permakultura oinarri, lurra biziberritzen



Permakulturaren bidez lurra emankorrigo egiten dute eta habitata berreskuratzen dituzte Habitat Design kooperatibako kideak.



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Pertsona ‘birziklatuak’ gara Sustraiak Habitat Design kooperatibako kideak: lan industrialagoetatik gentozen, baina krisia eta beste arrazoi batzuk medio, bestelako bideak jorratzeari ekin diogu”. Eber Egino kooperatibako kidearen hitzak dira. Lorezaintza eta nekazaritza ekologikoa ikasi zuen berak, eta due-la urtebete inguru jarri zuen martxan kooperatiba beste bi kiderekin batera: kimikaria lehena eta paisaia-pintore eta aparejadorea bigarrena.

Biziberritzea helburu

Habitata biziberritzea da Sustraiak Habitat Design taldearen helburu nagusietako bat. Lurraldearen ikerketa lana egiten dute lehenik, lur horren beharrak zeintzuk diren jakiteko. Ateratako infor-mazioarekin, kooperatibak lurraldearentzako planteamendu oso bat egiten du. Orain, adibidez, Arabako Añanako kuadrillan dute martxan proiektua. “Permakulturatik lurralde horren kudeaketan egon daitezkeen aukerak aztertuko ditugu, eta batez ere, bertako errekurtoak balioan jarri”, azaldu digu Eginok.

Administrazioarentzat ez ezik, nekazari txikientzat ere jarduten du kooperatibak. Lur-zati txikien kasuan, hidrologia aldetik sistema eraginkortzen saiatzen dira, baita mikrobiologia bidez eta oinarri ekologikoak erabiliz alorren emankortasuna berreskuratzen ere. “Egungo nekazaritza eta abeltzaintza oso erasokorra da lurrearekin eta pertsonekin. Kimiko guztiak kentzea eta aipatutako beste bide horiekin emankortasuna bilatzea da gure lana”.

Baso jangarrien ikastaroa

Kooperatibak antolatutako azken ekimenen artean, otsailean Suakin elkar-tearekin batera Etxalarren egin berri duten baso jangarrien ikastaroa dago. “Berez ez da baso bat, baizik basoa eredutzat hartzen duen nekazaritza mota bat”, dio kooperatibako kideak. Basoko sistema “kopiitzen” dute emankortasuna handitzeko. Geruza ezberdinetako zuhaitz, zuhaixka eta fruta-arbolak landatzen dituzte, eta animaliak sartzen (ardiak, behiak, oiloak...) ongarri sistemen zikloa ixteko. Dibertsitate –eta aldi berean emankortasun– handiko sistema izan ohi da baso jangarria. ■

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

www.bizibaratzea.eus webguneko edukia zure e-postan jaso ditzazun, buletin eder bat ari gara prestatzen. Bertan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukia biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

EUSKAL HERRIKO AGENDA

Martxoaren 4 eta 5ean Igorren Basogintza jardunaldia

“Basogintza eredu berriak, etorkizuneko politika publikoak eta jendartea ahal-duntzea” izenburupean, 3. jardunaldiak egingo dituzte. Martxoaren 4an, 9:30ean hasita aurkezpen laburrak egingo dituzte, Kultur Etxean. Arratsaldean *Gutik Zura* filma emango dute. Martxoaren 5ean Muruara ibilaldi gidatua egingo dute.

Martxoak 4: Hernani Biodibertsitatearen aldeko auzolana

Karabeleko etxaldean hezegunea sortuko dute, anfibio, narrasti, sorgin orratz eta burrunziak kontserbatzeko. Aranzadik eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako ekintza da. Izena emateko idatzi idazkari-tza@aranzadi.eus-era.

Martxoak 5: Bera Hazien Eguna

10:30ean hasita, Rikardo Baroja Eskolan. Bakoitzak eramandako haziak paratuko dira erakus mahaian. Eguerdian solasaldi irekia eta hamaiketako egingo da.

ZURE HERRIKO AZOKAREN BERRI EMAN

edukia@bizibaratzea.eus helbidera idatzi edo www.bizibaratzea.eus webgunean bertan, oso erraz.

Agenda osoa noiznahi ikusteko:

www.bizibaratzea.eus

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

1

Arabako Bertsolari Txapelketako sarrerak martxoan zehar

Bertso-eskolen sarea 1982. urtean hasi zen ehuntzen Araban. Urte guzti hauetan sare honek berebiziko garrantzia izan du bertsolaritzan ez ezik, euskalgintzan eta herrigintzan oro har. Hori azpimarratu zuten Arabako Bertsolari Txapelketako antolatzaileek joan den urtarrean Aiaraldean egindako aurkezpenean. Aurten, 18 bertsolarik parte hartuko dute Txapelketan. Bakoitzak bi finalaurrekotan kantatuko du eta bi saioen arteko puntu metaketak emango die giltza finalera sartzeko. Finalaurrekoak, hurrenez hurren, martxoaren 4an Legution, 11n Laudion eta 18an Aramaion izango dira. Bertso saio horietako lehenengo seiak sailkatuko dira apirilaren 1ean Gasteizko Printzipal Antzokian egingo den finalera.

ARGIAko kideek finalaurreko zein finalerako sarreraren zozketan parte hartu ahal duzue martxoan zehar. Astero launa sarrera zozketatuko ditugu ARGIAkoen Gunean parte hartzen duten lagunen artean, eta hilabete bukaeran Gasteizko finalerako sarrerak zozketatuko ditugu.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

www.bertsozale.eus/araba
945 010 505 / 675 707 971

Martxoko sariak

1



Finalaurrekoetarako eta finalerako sarrerak
Lau sarrera saioko

2



Solte taldearen Ixa diskoa
5 KD

3



Palestinako ipuiak
4 liburu


4



Lekore
3 sortai

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Ezagutzen al dugu gure blog komunitatea?



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Blogetan! lehiaketaren berri eman genizuen txoko honetan orain aste batzuk. Azkue Fundazioak antolatutako ekimean laguntzaile dabil ARGIA, eta euskarazko blog komunitatean kultura, gizartea eta politika, aisialdia, eta zientzia eta teknologia arloetan banatuta idazten diren blog onenak saritu nahi dira. Sarean ere euskaraz bizi gaitezke eta hau bada seinalea.

Lehiaketa hutsa izan ez dadin, baina, Azkue Fundazioak aurtengo edizioan inkesta bat ere jarri du martxan. Ezagutu nahi ditu zein diren euskarazko blog komunitatearen joerak, nola kudeatzen dituzten blogariek beren orrialdeak, zein gairi buruz idazten duten, zergatik, zein euskarriren gainean aritzen diren lanean, zein maiztasunekin argitaratzen dituzten postak, eta abar. Eta gaurko joera horiek baliatu nahi dira etorkizunerako estrategiak, garapenak eta egitasmo berriak martxan jartzeko. Horretarako, ordea, ahalik eta blogari gehienek inkesta betetzea komeni da; errealitatearen ikuspegi zabala lortu eta informazioa benetan baliagarria izan dadin. Euskarazko blog komunitatea oso handia ez izanik ere oso joera ezberdinetako

erabiltzaileak biltzen ditu, eta guztien errealitatea ezagutzea beharrezkoa da benetako analisi bat egin ahal izateko.

Eta inkesta hau martxan jarri dela jakinda, niri galdera bat etorri zait burura. ARGIAk bere blog komunitatea badauka, eta noizbait aztertu al dugu daturik? Zer dakigu gure komunitate honi buruz? Korrika batean eta azterketa handirik egiteko astirik hartu gabe, baina datu orokor batzuk atera ditugu. Gaur egun 109 dira ARGIAko bloga duten lagunak. ARGIAko kazetariak batzuk, kolaboratzaileak besteak, blog bat ireki nahi eta ARGIA plataforma moduan aukeratu dutenak; eta badira taldeak edo gai konkrituak lantzeko irekitako blogak ere. 2006an hasi eta gaur arte joan dira irekitzen orrialdeak, eta 2013an izan zuen indarririk handiena; 39 blog zabaldu ziren. Urte horretan eguneko 5 postetik gora publikatu ziren, eta hori izan da momentu indartsuena. Gaur egun eguneko 2,5 post argitaratzen dira, batez beste.

Mugimendu eta joera hauek bezala beste hainbat aztertzen jarraituko du ARGIAk, hau ere bai baita denok osatzen dugun komunitatea. ■



Mugarik Gabe-ko lagunak ARGIAra bisitan

“Komunikatuz eraldatu” bira egin dute Latinoamerikako komunikatzaile indigenek Euskal Herrian, otsailaren 13tik 22ra. ARGIArekin egin genuen trukean, hitz egin genuen langileok jabe izatearen garrantziaz, 2008ko krisitik hona egindako bilakaeraz, ildo editorialtzat balioak hartzeaz, logika kapitalista gaitzitzen duen komunitateko kide egiteko formula berritzaileaz, Interneten lizentzia librearen filosofiaz...

Hausnarketarako gaiak jarri zizkiguten haien esperientziak: eurek lan egindako medioetan publizitateak sortutako kontraesanak, euren hizkuntza eta komunitatea jasotzen ari den errepresioa natur baliabideak ustiatzen dituzten enpresen bidez egiten dela... Azpitu luen bidez multimedia edukiak partekatzeko aukerak landuz bukatu genuen.



Otsaileko sarituak

- **Pecozza United:** Haritz Plazaola (Bartzelona), Oihana Zuazolazigorraga (Azkoitia), Esteban Etxeberria (Hernani), Xabier Zubizarreta (Arrasate), Juanan Barrenetxea (Gamiz-Fika).
- **Mariametsetan:** Mikel Igoa (Donostia), Isabel Razkin (Uhartea-Arakil), Aiora Filar-mendi (Aretxabaleta), Jose Luis Hormaetxea (Bermeo).
- **Korrikako kamisetak:** Joxemari Amundarain (Atallu), Ander Epelde (Soraluze), Andoni Mitxelena (Donibane Lohitzune), Olatz Usobiaga (Donostia), Amaia Agirretxe (Azpeitia).
- **Intxortako frontera bisita:** Javi Elvira (Donostia), Gurutze Aiartzaguena (Zaldibar), Antton Idiak (Ezkioko Itsaso), Eukeni Abasolo (Gasteiz).

Pello Lizarralde, idazlea

“EZ NAIZ FIO OSO LIBURU DESBERDINAK IDAZTEN DITUZTEN IDAZLEEKIN”

Elur Bustia-ren promozioaldiak luze dirau. lazko ekainean argitaratuagatik, oraindik elkarrizketa proposamenak iristen zaizkio Pello Lizarralderi. Ahal bezain gutxi errepikatzeagatik, saiatu gara eleberria aitzakia hartuta idazlearen apustu literarioaren atzean dagoenaz hitz egiten.



Kepa Matxain

@kmatxain

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Otsaila da Hiri Buruzagian. Ilunabarra gerturatzearekin bat, jendeak pausoa mantsotu du Alde Zaharreko kale euriztatuetan. Atertu ondotik, urak hiria garbitu duela sumatzen da arnasa sakon hartuz gero. Hotel Maisonnaveko beiratearen alboan gizon soildu bat *Diario de Navarra* irakurtzen ari da. Barruan, zerbitzaria, heldu berri diren bi gazteei zer hartu behar duten galdezka. Te zuri bat eta zurito bat atera dizkie azkenean. Arratsaldeko seiak jo dutenean Pello Lizarralde sartu da atetik, aterki tolesgarria eskuan, eta bi gazteengana gerturatu da. Diosal egin, eta adierazi du oraingoz ez duela ezer hartu nahi. “Agian geroago”. Segidan, eskailerak igota dagoen txoko diskretuagora mugitzea proposatu du, lasaiago hitz egiteko. “Oso leku atsegina da hau, baina arratsaldeetan jendez bete ohi da”. Gainontzean, ez da ezer berezirik gertatu. Ezta behar ere. Nork dio ez dela elkarrizketa bezain aipagarria elkarrizketaren aurreko denbora hila.

Zure markako eleberria da *Elur Bustia*. Ohi duzunez, pertsonaia bat ageri da –Ramiro–, alderrai, eta bere ibilbidea kontatzen duzu zehaztasun handiz. Industrialde batean hasi, eta une batez hiriko alde zaharrraino sartzen da. Aurreko eleberriein alderatuta, paisaia urbanoagoan kokatu duzu hau.

Pentsatu nahi nuke garai batean baino gehiago dakidala, eta hobeto egiten dudala, baina kezka eta forma aldetik aurrekoen berbera dela iruditzen zait. Ez dago aldaketa handirik. Behin aukera bat eginda zaila da beste puntara joatea. Ez naiz fio oso liburu desberdinak idazten dituzten idazleekin. Gehienetan ez dizkiet sinesten. Edo sinesten diet bat, eta hurrengoa ez, eta hurrengoa bai. Alde horretatik, nahiago ditut lerro garbiago bat jarraitzen dutenak.

Ramiro etxera bidean doa, hegoalderantz. Lanak huts egin dio, eta familierengana itzuli nahi du. Zure obran errepikatzen diren patroik asko ditu liburuak:

pertsonaia bakarti bat, bidaia bat, gertakizun handirik ez... saihetsezina dirudi elkarrizketa guztietan galdetzen dizutena aipatzeak: euskal literaturan apustu oso bakana da zurea.

Idazle jatorrak eta atseginak aurkitu ditut herri honetan. Beti izan ditut lagunak eta solaskideak, baina gustuetan konplize gutxi izan dut. Hori liteke seinale bat. Hemen, nik hartu dudana bidea ez dute beste askok hartu, baina idazle askok aspaldi egin dute hori, beste literatura batzuetan, beste herrialde batzuetan, hizkuntza guztietan... Eta horrek eragiten dit susmo bat: askok ez ote duten askorik irakurri. Nire bidea ez baita oso bide urratzailea.

Ezta nahi ere.

Transgresioa aipatzen den bakoitzean barrez lehertzen naiz. Kontuz hitz hori ahotan ibiltzen dutenekin, oso gutxi irakurri ohi dute. Punkia izan nahi baduzu, arazo bat daukazu. Agian punkia zara, nahi gabe. Urraketa, gertatzeko-



tan, beti gertatzen da inkontzienteki. Pottokak Baztanen garai hartan egiten zuen musika oso urratzailea zen, baina berak ez zekien. Berak egiten zuen zekiena: bordan egoten zen ardiekin, hartzen zuen gitarra, entzuten zituen hango eta hemengo artistak, punka eta Mikel Laboa, eta hura atera zitzaion. Ez zuen urratzaile izateko borondaterik, baina harrigarria zen hura entzutea. Ikusten zenuen oso egiaz ari zela. Baina hasten direnean arte eskolatik ateratako ume moko hauek beren performanceekin eta instalazioekin, edo sukaldariak jakiei hidrogenoa sartzen... izan daitezkeen tontakeriarik handienak dira. Horiek ez dute ezer egingo inoiz. Denbora pasa ariko dira. Engainatuko dituzte museo batzuk, beharbada editoreren bat, edo diskoetxeren bat. Baina ez dute batere iraungo, gezurretan ari direlako hasieratik. Nabarmendu nahi dute, eta horretarako bilatu duten hitza da *urratzaile* izatea.

Baina hori ez al da betidanik gertatu?

Lehen ere bazen, baina orain itxura egitea bereziki dago indarrean, eta oso nazkagarria da. Gainera, onartu egiten da. Burgesiaren denbora-pasa bat da, eta burgestu garen neurrian, zabaldu egin da. Orain asko entzuten da *multidiziplinar* hitza. *Bertso-hop*, *jazz-hop*, eta saia-kera horiek, txisteak dira. Forma jartzen dute gauza guztien gainetik, nahiz eta esateko gutxi edo lehengoa izan. Baina formak beti izan behar du helburu bat, bestela zertarako? Forma berez ez da deus. Gainera, formak oso aztertuak daude. Harrigarria da ikustea zer egin izan den. Badakit berritzea posible dela, eta etorriko dira gauza berriak. Baina horretarako behar da bizipen bat, sena, eta jenio pixka bat. Ez du edonork egiten. Eta gero dago beste hautu bat, beren bidean isil-isilik lan egiten dutenena. Egiaz ari badira, horien apustua ere azkenean sendotu eta ezarri egiten da.

Zu ez al zaitu sekula jo urratzaile sukarak?

Ez nizuke ukatuko. Normala zen nera-bezaroan, edo pasa berritan. Baina zorionez berehala pasatu zitzaidan. Gazte bat etortzen zaizunean nobela bat idatzi duela esanez, oso konpromiso handia izaten da: ez diozu minik eman nahi, ez zaude inoren gainetik, eta ez zara hura epaitzen hasiko. Niri ez zidaten ezer

- » “Urraketa, gertatzekotan, beti gertatzen da inkontzienteki”
- » “Batzuek diote 40 urtetik aurrera ez dela fikziorik irakurri behar. Nik kontrakoa egiten dut: gero eta gehiago irakurri”
- » “Ez dut kontatu nahi zer kontatu nahi izan dudana, ze agian ez dut ezer kontatu nahi izan”
- » “Irudimena ahalmen interesgarria da, ditugun guztiak bezala, baina literaturan ez du balio handirik”
- » “Egun guztia pasatzen dugu begira, zerbait entzuten, gauzak ukitzen... baina gero ez da horrelakorik erakusten nobeletan”

esan, baina esan behar zaio: “Ez izan presarik. Egon beste bizpahiru urte, idatzi gehiago, eta benetan zure adierazpena idatziz egin nahi baduzu, etorriko zaizu argitaratzeko garaia”. Antsietate hori baretu egin behar da. Presa oso aholkulari txarra da.

Zuk, oster, garbi samar daukazu non mugitzen zaren. Ematen du topatu dituzula zure koordinadak. Asko kostatu al zitzaizun?

Azkar samar konturatu nintzen. Ton-takeria batzuk egin nituen, baina ez nintzen 18 urterekin hasi. Gakoa beti da zer irakurri duzun. Gogoratzen naiz behin Beñat Sarasolak bere blogerako egindako elkarrizketa batean izenburutzat hartu zuela esaldi hau: “Egun batez pentsatu nuen aio, García Márquez, aio, Borges eta sekulako lasaitua, eta aldi berean, bultzada berezia sentitu nuen”. Haiek irakurrita, garbi ikusi nuen ez zitzaidala bide hura deus interesatzen. Segituan topatu nintzen idazle alemaniar berriekin, eta hori izan zen zalditik erortzea bezala. Thomas Bernhard, Peter Handke bat, Robert Walser eta beste asko. Frantziarrak ere bai: Patrick Modiano Nobel sari izan aurretik itzuli nuen euskarara. Hori zerbaitegatik da. Italian Giani Celati edota Elio Vittorini. Edo Natalia Ginzburg bat edo nahi baduzu Patricia Highsmith bat... idazleak, asko. Guneak, hautatzekotan, Alemania eta AEBak. Eta batez ere XX. mendeko literatura.

Kuriosoa da aipatu dituzun izen batzuk –adibidez Txekhov edo Walser– euskal idazle batek baino gehiagok aldarrikatu izan dituztela, zure idazkeratik oso urrun egon arren.

Gero, baditut oso gogoko ditudan idazleak, baina imitaezinak: Cesare Pavese, Julio Cortazar, William Faulkner... edo oraingora etorrita, Alice Munro bat... horien bidetik hasten bazara, galdua zaude. Oso mundu pertsonala dute, beste edozeinena baino askoz ere pertsonalagoa, eta aurkitu dute hori ekartzeko modu bat imitatzen hasiz gero frakasora eramaten zaituena zuzenean. Handi horiekin alferrik da, tira, nik behintzat ez nezake. Baina irakurle gisa gozatzen dut ikaragarri. Liburuekin gertatzen da bat irakurtzean bidea erakusten dizula beste batzuk bilatzeko. Hasi nintzenean, arazoa zen euskaraz ez zegoela antzekorik. Euskarak balio ote zuen horrela kontatzeko? Nik apustua egin nuen, besterik ez nuelako egin nahi, eta imitatuz aurkitu nuen nire bidea. Ikusten ditut zein diren esaten dituzun koordinada horiek. Baina nik garbi daukadana da zer ez dudana idatzi nahi.

Eta zer ez duzu idatzi nahi?

Ez dut idatzi nahi ideia duen nobelarik, pertsonaien psikologian sakontzen duenik, genero nobelarik, tesi nobelarik... dibertitzeko propio egindako nobelak ez zaizkit interesatzen. Eta beste batzuk nahita ere ezingo nituzke egin. Ikasi beharra dago zer nahi duzun eta zer egin dezakezun. XIX. mendeko pertsonaiez betetako nobela luze batean sartuko banintz frakasatuko nuke instantean. Bestalde, dibertitzeko propio egindako nobela ez zait deusetarako interesatzen. Artean dena da hunkitzea: batzuetan barre egitea egokituko zaizu, besteetan pentsatzea, inoiz negar egitea, baina hunkitzeko ez dena ez zait interesatzen.

www.bertsozale.eus


IRURITA
Gizarte Bilgunea
Martxoak 4, 17:30

UHARTE
Arte Garaikideko Zentroa
Martxoak 5, 17:30

FINAL-LAURDENAK

OSKAR ESTANGA, JULEN ZELAETA, AMARA ELIZAGOITIA, JOSE SANJULJO, ERATZ ASTET, SAREK KARASATORE, ENKO FERNANDEZ, ANDER FUENTES "ITTUEN", SARAI ROBLES, XABIER MAIA, IATZI MAJUELO, OSCAR SANZ DE ALDO

ARGIA



Zergatik egiten duzu hautu literario hori? Zer dago horren atzean?

Irakurle azkarra. Interpretaziorako bidea ematen duen nobela interesatzen zait, irakurlearentzat zulo asko dituen, eta uzten diona leku askotatik sartzen eta ateratzen, berearekin ateratzen. Niretzat frakaso bat da gauzak esplikatzea. Ez dut kontatu nahi zer kontatu nahi izan dudana, ze agian ez dut ezer kontatu nahi izan. Egituran oso liburu garbiak dira, artifiziorik gabeak, eta hitz guztiak neurtuta daude. Oxigeno asko daukaten liburuak interesatzen zaizkit, merezi ez duten gauzetan galtzeko biderik ematen ez dutenak.

Kritika anglosaxoiak bereizten dira bi literatur korrante: "tell" edo kontatu egiten duen narratiba, eta "show" edo erakutsi egiten duena. Zu nabarmen zara bigarren eskolako. "Tell" tradizio guztia bazterzen duzu?

Irakurle gisara ez, baina idazteko orduan bai. Erabat. Soiltasuna oso gauza handia da literaturan. Tontakeriak uzteak onura asko ekartzen du, kontatzeko baldin badago.

Eta irakurle gisara, zure tradizioz urrun dauden ze idazlerekin gozatzen duzu?

Klasikoekin batez ere. Berriekin ikaragarri aspertzen naiz. Astero jartzen naiz nobedade mahaiaren aurrean, jakin-min handia daukat oraindik. Gero eta gehiago gustatzen zait irakurtzea. Batzuek diote 40 urtetik aurrera ez dela fikziorik irakurri behar. Txorakeriak esatea libre da, baina nik kontrakoa egiten dut: gero eta gehiago irakurri. Fikzioa saiakera baino gehiago, poesia garai batean baino askoz gutxiago. Eta oraindik topatzen ditut erakusteko asko daukaten idazleak, normalean bide horretakoak: zer kontatua dutenak, baina garbi samar, erakustaldirik egin gabe. Estiloarekin eta formarekin kezka handiak izateak bide okerrera eramaten zaitu. Esaten zuen Eduardo de Filippo zinemagileak: "Estiloa bilatzen duenak heriotza aurkitzen du, eta bizitza bilatzen duenak estiloa aurkitzen du".

Irakurri izan dizut irudimena ez zaizula askorik interesatzen.

Egia da. Irudimena ahalmen interesgarria da, ditugun guztiak bezala, baina literaturan ez du balio handirik. Esaten zuten Roberto Rosselliniaren meriturik handiena zela batere irudimenik ez izatea, eta ados nago. Irudimenak oso bide mitifikatuetara eramaten zaitu. Aurrena

beste zerbait behar da, eta gero, beharbada irudimenak ekarriko dizu beste zerbait. Baina irudimenak, berez, ez du balio.

Eta zein da irudimenaren antidotoa?

Bizipena. Kontzientzia eta errealtatea. Eta batez ere oharpena, munduari zorrotz begiratzea. Eta hortik galderak ateratzea. Irudimenak ez dizu galderarik uzten, dena da su artifiziala, baina zertarako? Niri ez zait interesatzen. Egiten dudanerako ez zait ezinbestekoa, eta batzuetan, hori apaltzeak ere mesede egiten dit. Baina literatur joera asko dago, irakurle mota asko dago, eta batzuk horrekin asetzen dira.

Zu ere kokatzen zara literatur joera jakin batean, baina gero muturreko apustua egiten duzu. Gertakizuna bera ukatzen duzu.

Ez dut erabat ukatzen. Perbertsio asko daude literaturan, eta horietako bat da zer gertatzen den. Eta izaten dira gertakari harrigarriak, edo dramatikoak, edo azpimarratuak, edo gorabeherak, edo misterioa. Horiek gertatu gertatzen dira, baina ez modu horretara. Nire us-tez Ramirorena oso istorio dramatiko da. Kontua da nola jasotzen duzun gertatzen dena: niretzat, zentzumenak dira funtsezkoak. Nireak nobela sentso-rialak dira. Egun guztia pasatzen dugu begira, zerbait entzuten, gauzak ukitzen... baina gero ez da horrelakorik erakusten nobeletan. Egiten dira sekulako bidaiak bi minutuan. Kontatzen dizute Indiara joan eta ze gauza harri-garri ikusi dituzten han. Baina airepor-tuan aspertuta pasatu dituzten orduak? Horiek ez al dira bidaiak? Zergatik ez dira kontatzen? Eta, gero, beste arriskua da melenga izatea. Ezin dut jasan lirismoa. Izatekotan, inozentzia egiazko batetik egin dezake bidea. Baina XXI. mendean hain sartuta gaudenean liriko jartzea zinikoa ere bada. Gustatzeko egiten den zerbait da. Eta orain *mainstream*eko zabor asko lirikoa da batez ere. Polita. Baina nork nahi ditu gauza politak?

Esan iezazkidazu azkenaldian gustura irakurri dituzun hiru liburu.

Hirurak dira argitaratu berriak, eta oso gustura irakurri ditut: *Mémoire de fille* (Annie Ernaux), *Fat City* (Leonard Gardner) eta *Erretiroa* (Sergei Dovlatov). ■



IKUSEZINAZ II (1972)

Olioa oihalean. 195 x 263 cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Jaioterrian bai, eskaini zioten, Donostian ez dauka kalerik Amable Arias Yebrak (Bembibre, 1927ko ekainaren 29a – Donostia, 1984ko otsailaren 29a), nahiz eta bertan bizi izan 15 urte zituenetik, nahiz eta bertan egin artista, nahiz eta bertako arte mugimenduan pieza inportantea izan. Gure esker ona ez da berdina artista guztien ganako, antza. Zergatik geratu da Amable Arias halako linbo moduko batean? Gaur taldeko kidea izanagatik, Euskal Eskola-ko beste ordezkarien hain diferentea zela-ko? Bere lana ez delako erabili herri baten identitatea irudikatze-ko, talde horretako beste batzuen erabili den bezala?

9 urterekin istripu larria izan zuen, trenbidean, jolasean ari zela. 1942an Donostiara etorri zen familia, urte gogorak izan ziren, aita hiria uztera behartu zuten, tratu txarrak ematen zizkien amari eta Amableri, estraperloko penizilinarekin osatu zen amiñi bat, orduantxe hasi zen etxetik irteten, Ascensio Martiarenarekin hartu zituen akuarela klaseak tarteka.

1956an margotu zituen bere lehen olioak. Lau urte geroago egin zuen bere lehen bakarkako erakusketa. Hiriko giro artistiko ofizialak ez zuen batere ondo hartu 1963an egin zuen erakusketa: *Espa-*

zio Hutsak. 1966an sortu zen Gaur taldea, eta Amable Ariasek idatzi zuen manifestuaren lehen bertsioa, gero dezente kimatuta argitaratu bazuten ere.

Espiritu libreko artista, mundu bat asmatu zuen Amable Ariasek, koloretsua eta alaia bere erara, izaki bitxiz betea, bakarrik ez sentitzeko, munduan bizitzen asmatzeko. Zoragarriak dira leuntasun erotiko hori, bihurrikeria estetiko hori, unibertso ludiko hori. Ez da ordea jolas artistiko hutsa, *l'art pour l'art*, badu bere gizarte kritikoki erretratatzeko nahia eta abilezia.

Idatzi ere egiten zuen. ■

AMABLE ARIAS

Unibertso ludiko hori

Mundu bat, Marijane

Adineko (idazle) bat hiltzen denean, munduaren memoriaren parte bat da ezerezean urtzen. Neurriak neurri, Amadou Hampaté Ba ezagunaren ebazpena aplikatzen ahal zaio Bankan sortu izkiriatzaileari ere naski. Dena delakoan, ideia horrek urratu zidan kasko zokoa barda, Marijane Minaberri (1926-2017) zendu zela jakinarazi zidatenean.



Itxaro Borda

Baiona eta Uztaritze artean pasatu zuen bizitzaren zatirik handiena *Basque-Eclair* egunkarian lanean, idazkari gehienetan, baina noizbehinka artikulatuak plazaratzen behialako euskaldunen irakur-tiria asetzearren. Erran behar da denbora haietan leitzeko ohitura indartsua zela jendar-tean... eta, aitzindaria zen jorratzen zituen alor guztietan: kazetaritzan, irratigintzan bai eta literaturan, bazterrak sekula harrotu gabe.

Itzalpeko ekilea zen, nolabait euskal gauzek eta euskaldun haurrek pasionatzen zutena, isilean eta orduko emazteei zegokien umiltasunean ari zena, nahikoa apaletsiak ziren ildoak urratzen. Emakume askorik ez baitzen ospetsu egin iparraldeko hitzaren historian zehar, XIX.

mendeko hondarreko Maddi Ariztia eta Marijanek garaikide zuen Madalena Jaurregiberri Alosekoaz aparte. Ardurenean, idazkiak sinatzeko izengoitiak erabiltzen zituen, Andereño edo Atalki besteak beste, anonimotasunak ziurtasuna bermatuko balio bezala.

Umeak ginenean euskararen gostua txertatuko zigun Pariseko osabak eguber-ritan bidaliriko *Txori Kantaria* bildumak, bere azal berdeaz gerizatu poesiekin, gure ingurune naturaleko elementuak zituela mito bihurtzen hala nola euria, elurra, txoriak, lapinak, mendiak eta ibaiak. Beranduago Haize Garbia elkartearen eskutik agertu *Dictionnaire Basque pour tous* haren bi tomoak baliatu genituen gure perpausen zakarrak leuntzen saiatzeko.



EUSKONEWS

Marijane Minaberri otsailaren 23an hil zen. Haren sorkuntza ezaguna egin zen Oskorrik bere poemekin kantak argitaratu zituenean.

Marijane Minaberriren behako abila, kokina eta determinatua dagoeneko argazkietan baizik ez dugu ikusiko. Bidegileak ezinbesteko sailaren ale batean adibidez. *Herria* astekarian Ezponda bertsolariarekin emazteen lekuaz pataskaz ari zela ez zuen beldurrik ahoan bilorik gabe erantzuteko, alderantziz. Umila iza-nagatik, kuraiosa izan baitaiteke.

Batzuetan iruditzen zait Marijane Minaberrik gaur iparraldean (eta hegoaldean halaber, egoera ez baitzen hobeagoa) hazi diren emazte idazle eta plaza-andere belaunaldiari atea ireki ziola. Gogoetaren ukigarritasunak inarosten nau goiz umezurtz honetan.

Marijane, kantazan orain gure bihotzetan! ■

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Argipean



Igor Estankona



Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak

MIKEL ETXABURU

Erein, 2016

Mikel Etxaburuk ipurtargiarena egin du Bilboko Blas de Otero Poesia saria merezi izan duen *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein, 2016) honetan. Ipurtargiak ez ei du eguzkia helburu: “Ematen du bere burua ikusteko lain argi;/ eta nahikoa zaio nor den ez ahazteko”. Ipurtargiaren argiak, bat-batean, farolak dira. Urbanoa baina naturarekiko erreferentziaduna, itxaropentsua baina hitsa, geldoa arean, liburua gauzen inguruan ohartzeko deia da zelanbait. Etxabururi ez zaio interesatzen sublimazioa edo zero-goia; nahiago du lurreko ikusmira. Autoreak berak esana du: “Poesiak badu errealitatea eraldatzeko mailu hori. Niretzat poesia hori da: begiratzetik ikustera dagoen urrats hori poemetan islatzea. Zein da urrats hori? Kontzientziarena”.

Eta kontzientzia poetikoa eta soziala nahastean, ibiltzen ditu kaleak, barnekoak zein kanpokoak, bihotz-begiak zabalik, eta ez hainbeste begiak eurak. Horrela errebelatzen zaizkio gaueko biztanleak, kuttazainetako maizterrak, ikusezin bihurtu ditugun geure mamuak: “Eguzkia irten da./ Plazetako egurrezko eserlekuak okupatuta daude,/ beti daude okupatuta,/ eta beti dira berdinak/ egurrezko eserlekuak hartzen dituztenak”.

Horregatik liburu honen hariak biderkatu egiten dira hiriaren irudi-amarauna sortu arte. Fikzio pertsonal antzeko bat da amaraun hori, esperientziak eta oraina lotzen dituen modu aski erreal batean, lirismo aski hausnartu batekin.

Batera eta nahasian datoz, halaber, argia eta gerizpea, nia eta besteak, denbora eta

memoria. Halako osotasun bat opatzen dio horrek poemategiari, inoiz eskerraria, uneka monotonoa. *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* gehiago da pentsalari baten poema liburua, poeta baten pentsamendua baino. Edertasuna, erritmoa, hitza... bigarren mailakoak dira beste bertute batzuen aldean. Kritika, hunkidura, enpatia... horiek bilatzen ditu Etxaburuk agirika, eta askotan desesperazio hori, zerbait esan beharraren beharra, horixe da hain zuzen poema konplikatu eta nahastu egiten duena, metafora duda mudazkoetan: “Eta olatuak bainuontzian gorde nahi zenituzke,/ baina beranduegi da, bainuontzia zulatuta dago eta/ itsasoak ihes egin du zure bainugelatik”.

Hau ez da *Zu zara orain txoria* (Elkar, 2011) eta *Hodeiak zapatatzen* (Susa, 2014) bezain freskoa, ez da hain borobila. Haietan erreka bezala zioan irakurketa, berez-berez. Honako lan hau behartuagoa iruditzen zait, energia xahutze bat. ■



Mikel Etxaburu
(Ondarroa, 1969)
poetaren hirugarren
poesia liburua da
honako hau.

» **TELEGRAMA**

Tremenda jauría taldea ezagun egin da azken urteotan reggaetoi feminista egiteagatik: Donostiako Dokan ariko dira martxoaren 3an **DJ Mia**urekin batera **STOP Dantzaz** konpainiaren azken ikuskizuna, **Harri, orri, ar** Elorrioko Arriola antzokian ikusteko parada izango da martxoaren 4an: 20:00etan da zita, 10 euro sarrera **STOP** Lehen diskoarekin jende asko harritu ondoren, **Neighbor** taldea bigarren lana aurkeztzen ari da, **Hau** izenekoa. Bilboko Biba espazioan ariko dira martxoaren 4an, 19:30etik aurrera **STOP**

» » **KONTZERTUA**

Don Giovanni balekoa

Mozarten "Don Giovanni"

EUSKADIKO ORKESTRA
SINFONIKOA

Zuzendaria: Keri-Lynn Wilson.

BILBOKO OPERAREN
ABESBATZA

Zuzendaria: Boris Dujin.

Eszena zuzendaritza eta

eszenografia: Jonathan Miller.

Bakarlariak: Simon Keenlyside,
Simón Orfila, Davinia Rodríguez,
Serena Farnocchia, José Luis Sola,
Miren Urbietta Vega, Giovanni Romeo,
Gianluca Buratto.
Euskalduna Jauregia.
Otsailaren 18a.



Montse Auzmendi

Zalantzarik gabe, Mozarten operak errepertorioaren ederrenetakoak dira. Eta hauen artean, *Don Giovanni* faboritoenetako bat. Baina Mozarten musikak badu berezitasun bat: ederra eta melodiatsua, erraza eta arina dirudi, eta aldi berean oso-oso zaila interpretatzeko. Bai operetan, bai sinfonietan, bai pianorako egingako musikan, interpreteek ezabatu egin behar dute zailtasun hori, eta arintasun eta nolabaiteko etereotasunez bete behar dute giroa. Bestalde, Mozarten musikak badu beste ezaugarri arriskugarri bat: ez bada arimaz interpretatzen, aspergarria izan daiteke.

Esandakoarekin lotuta, aitortu behar da OLBEk antolatutako *Don Giovanni* ez zela espero genuen mailara iritsi. Interpretazioa, orokorrean, pisua izan zen, ez arina eta zertxobait aspergarria, ondoren aipatuko ditudan arrazoengatik.

Lehenengo eta behin: eszenografia eta argiztapena. Aldi honetan, benetan pobrea. Eszenario bakarra izan genuen saio osoan. Bai, oso soila, edozertarako balio zuena, baina hiru ordutan hainbeste gauza gertatuta taula gainean, bada, ez zen nahikoa, eta bisualki erabat aspergarria. Possible zen, noski, argiztapen dotore batekin hori hobetzea, baina ez

zen halakorik izan, guztiz planoa bazik.

Eszena zuzendaritza berriz, soila baita ere. Opera bukatzerakoan sentsazio arraro batekin geratu nintzen: ia-ia hobe kontzertu bertsioa eskaintzea, hain zuzendaritza eskasa egitea baino.

Baina, tira, egiari zor, alde musikala izan zen saioaren onena, nahiz eta primerakoa ez izan. Bakarlarien artean, bi emanaldi nabarmenduko nituzke. Alde batetik, José Luis Sola tenore nafarrak Don Ottavio konbentzigarria egin zuen. Ondo interpretatua eta oso egokia ahots aldetik. Bestetik, Gianluca Buratto (lehenengo aldiz OLBEn) baxuak txunditu egin zituen entzuleak, bere ahots biribil eta sendoarekin. Horrez gain, interpretazio intentzioduna egin zuen, zirraragarria. Emakumezkoen artean, Miren Urbietta Vega sopranoaren aktuaioa azpimarratu behar da. Bere Zerlina ez zen guztiz txispaduna, baina ahotsez primeran sumatu genuen, distiratsua. Gehiago espero zen, berriz, Davinia Rodríguez eta Serena Farnocchia sopranoengandik, Donna Anna eta Donna Elvira paperetan, nahiko planoak aritu baitziren. Nire zalantzak ditut Simon Keenlyside baritonoarekin, Don Giovanni egin zuena. Momentu batzuetan adorez aritu zen, beste batzuetan ez zirudien protagonista. Simón Orfilak Leporello rolean eta Giovanni Romeo baritono baxuak Masetto paperean, graziaz egin zituzten beren lanak, eta publikoak eskertu zuen.

Euskadiko Orkestraren lana, Keri-Lynn Wilson-en batutapean, diskretua. ■

Keri-Lynn Wilson (Winnipeg, 1967) zuzendari kanadarra.



Ozaki Gardenak



+

MARTXOAK
OSTIRALA

10

23:00tan

BI DISKOEN
AURKEZPENA



www.pagoa.eus

ERRAIAK

PAGO

KAFE ANTZOKIA

OIARTZUN

A: **10€** T: **15€**

Oiartzun: Amazkar, Elorsoro,

Pagoa Kafe Antzokia

Donostia: Donosti Rock

Errenteria: Arkaitza Taberna

Internet: pagoa.eus, ticketea.com, Colectivia
Mauka, oferplan eta www.ticket.kutxabank.e



Pagoa Kafe Antzokia:
Irekia
ostirala, larunbata

17.00tik - 06:00ra
Erreserbak: 619 421 153
@PagoaAretoa
kafeantzokia@pagoa.eus

Pagoaldea 7, Ergoien auzoa
20180 - Oiartzun. EH.



berria

antza ARGIA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

PAGO

Euskal Herri berriko
artisau garagardoa



Elizabeth Macklin. Poeta



ARITZ LOIOLA

Kirmen Uriberen AEBetako sustatzaile eta itzultzaile moduan ezagutu genuen New York estatuko poeta euskalduna da Elizabeth Macklin. Estilo zuzenketak egiten ikasi eta horretan jardun zuen 1974tik 1999ra *New Yorker* aldizkarian. Egun *freelance* dabil, idazleentzat zuzentzaile eta itzultzaile lanean. Zoriak gurera ekarri zuen 1999an eta, geroztik, urtean bi aldiz etorri ohi da Bilbora.

“Hemen badut euskarazko nire ‘artxipelagoan’ bizitzeko aukera”

Jabi Zabala
@sarean

Asmoak asmo

“Hemen bizi izan nintzen urtean bi xede nituen: txakur kakarik ez zapaltzea eta kalimotxorik ez dastatzea, kontzeptua ezin bainuen onartu. Abuztuko egun sargori batean norbaitek ardo onarekin egindako kalimotxoa eman zidan eta ederra zegoen. Urte osoan, hala ere, ez nuen gorotzik zapaldu, eta atzo bertan bat zapaldu nuen, non eta Abandoko geltokian! Asmoak asmo, uste dut ez dudala inoiz euskara guztiz ikasiko, gogoa izan arren”.

New York estatuko *upstate* barnealdean sortu zinen, hiritik urrun.

Hiri handiarekin harreman gutxi izan nuen txikitan, eskolarekin txangoren bat bakarrik. Espainiar hizkuntza eta literatura ikasi nituen are urrunago dagoen Postdam herrian, eta 1972an Madrilen ibili nintzen ikasle. Egia esan, Madrilen ikasi nuen New York hirian bizitzen.

Poesiarekiko interesa gaztetatik garatu zenuen?

Garai hartan Lorcaren lana irakurria neukan, baina ez neukan poeta izateko asmorik. Lagunentzat eta familiarentzat idazten nituen poemak. Complutense unibertsitatean oso irakasle berezia izan genuen, Carlos Bousoño poeta. Estetika eskolak ematen zizkigun eta oso tipo bixia zen, guardia zibilen gaineko Lorcaren poema deklamatzaren zuen, irakasteko. Bere teoria poetikoan sistema logikoaren apurketaz ziharduen, gaztelaniazko “u” fonemak sekulako indar txarra zuela zioen eta nik oraindik sinesten dut hori. Behin Bousoñori nire olerki bat erakutsi nion eta beste gauza batean aritzeko esan zidan.

Euskaldunekin lehenengo harremana ere Madrilen izan zenuen.

Bai, unibertsitate garaian donostiar bat eta bilbotar bat ezagutu genituen, babestu gintuzten, patata tortilla egiten eta hiri-kaleetan euritakoarekin inor ofenditu gabe ibiltzen irakatsi ziguten... Euskal Herriko dohainak! “Eskerrrik asko” esaten eta kantu batzuk ere irakatsi zizkiguten.

Euskal Herrira, baina, 1999an etorri zinen.

Amerikar poetentzat atzerrian urtebete igarotzeko dagoen Amy Lowell beka lortu nuen. Hasieran Machu Picchura joatea pentsatu nuen baina han gatazka zegoen eta Euskal Herria aukeratu nuen, hemen su-etena zegoela eta Guggenheim museoa zabaldu berria zela jakinda. Lehengusu txiki batek *Obaba-koak* aholkatu zidan, ingelesez irakurri nuen. Ondoren, *A man alone* ere irakurri nuen, copyright orrialdera jo eta *Gizona bere bakardadean* zioela ikusi nuen. Esaldi hori itzuli nahian hiztegi galdu nintzen... Ikasi nuen “berekoi” hitza *selfish* dela hirugarren pertsona –alaba bakarra naizenez nirekoa naiz– eta jakin-mina indartu zitzaidan.



Elizabeth Macklin New Yorkeko Bowery Poetry klubeko emanaldi batean, Mikel Urdangarinekin batera.

ELIZABETH MACKLINEK UTZIA

Hona iritsi eta euskara ikasteari ekin zenion.

Bilboko Txakur kaleko euskaltegian izena eman eta ikasten hasi nintzen. Beka amaitu baino bi aste lehenago erlatiboa ikasi nuen eta errazagoa egin zitzaidan ondoren Internet bidez ikasten jarraitzea, e-postaz eta Santurtzikoko euskaltegikoekin harremanetan.

2002an Kirmen Uribe ezagutu zenuen.

Otsailean gertatu zen, zorte handia izan zen; Santurtzikoko euskaltegian nengoela, irakasle batek haren artikulua bat erakutsi zidan. Urtarrilean *Egunkaria*-n zutabea idazten zuen astero eta idazkera lau duenez, atsegin nuen, erraz irakurtzen nuen, hiztegia sarri begiratu beharrik gabe. AEKn zebilen haren arrebaren bidez egin nuen harremana eta hark postaz bidali zidan bere poesia New Yorkera. Beldurrak jota nengoen, euskarazko poesia itzultzeko gai izango ote nintzen... Raymond Carverri buruz idazten ari zela eta, saiatu nintzen poemak ingelesera ekartzen. Nire ingurukoek irakutsi eta gustatu zitzaizkien, Kirmeni ere bai. Abuztuan ezagutu genuen elkar aurrez aurre.

Beti etortzen zara otsailean eta abuztuan?

Otsail hartan, hain gustura egonda, ez nintzen agentziara joan eta iraungi egin zitzaidan itzultzeko bidaia. Agentzia-koak, kalte-ordain moduan, 100 dolarren truke abuztuan joan-etorria egitea proposatu zidan. Geroztik hala egiten dut urtero: Santa Ageda eta Aste Nagusia. Hemen badut euskarazko nire *artxi-pelagoan* bizitzeko aukera.

2003an, ordea, zeuk jaso zenituen Kirmen eta lagunak.

Martxoan etorri ziren New Yorkera Kirmen eta musikari taldea. Irakurraldiak antolatu nituen sei bat tokitan: lehendabizi azalpenak ingelesez, jendeak jakiteko zer datorkien, eta gero emanaldia. Urte horretako abenduan *Zaharregia, txikiegia agian* atera zuten Durangoko azokarako eta testu guztiak itzuli nituen. Geroago, PEN Translation Fund-era *Bitartean heldu eskutik* liburuaren lagin bat bidali eta itzultzeko diru-laguntza eman zidaten.

Inoiz idatzi duzu euskarazko poemarik?

Bai, hizkuntza askotan New Yorki buruzko poemez osaturiko bilduma baterako

nik euskaraz idatzitako bat argitaratu zen, eta Senpereko Hatsaren Poesia bildumarako urtero idatzi ohi dut poema bat.

Trumpen garaipenak kezkatuta zaude.

Hain da nazkantea, atzerakoia... Gutxiengoaren presidentea dela azpimarratu behar da. Gutxienez bi urte pasatu behariko dira hurrengo hauteskundeetan kongresua aldatu eta bera *impeachment* bidez kentzeko. Harrigarria egiten zait zenbat jendek parte hartu duen haren aurkako protestetan.

Nola azalduko zenuke haren garaipena?

Ez dut supremazista zurien eragina onartu nahi, baina bistakoa da bazeudela hirien eta landa guneen arteko tirabirak. Trump-ek, telebistako *celebrity*-a zela, bazuen presidentegai ukitua. Anarkista zela esan zuen norbaitek, bai zera! Ikuspuntu distopikoa dut gai honetan, ez da txantxa. Ezikusiarena egin duten sektore asko jabetzen ari dira egoeraz; Trump lau urtez boterean egonez gero, fronte antifaxista bat osatuko dela uste dut. Hirietan ikasten ari gara gure ordezkari demokratekin harreman estua-koak izaten. ■



Arabako Batzar Nagusietako aktak arabieraz jasoko dituzte, Alah-ren izenean



Erabakiarekin bat azaldu da Javier Maroto popularra "RGIa kobratzen duten iruzurgile profesional horiekin" konektatzeko balio duelakoan.

"Zergatik bizkaitarrek bai eta guk ez", adierazi dio Beranduegi eskusiban Andoni Lopez de Meskitandiak, Batzar Nagusietako hizkuntza zerbitzuko arduradunak. Nonbait, iparraldeko bizilagunek aktak bizkaieraz jasotzeko hartutako erabakiak inbidia zikina eragin du Araban, eta bide beretik jo dute: arabieraz idatziko dituzte bileren aktak. "Ez hori bakarrik", gehitu du Lopez de Meskitandiak, "erakundearen izena ere aldatuko dugu: hemendik aurrera Bazar Nagusiak izango gara".

BBNNetako indar progresistek pozez hartu dute albisteak: "Bazen garaia eskuintik ezkerrentz egiteko, idazkeran besterik ez bada ere", esan du Podemoseko bixkor aurpegidun batek.

Zuberotarrek azpimarratu dute "biziki euskalki ejer, literario eta, garrantzitsue-na, estandarretik behar bezain aldentua" dutela, eta orain batzar nagusiak baizik ez zaizkiela falta aktak xibereraz jasotzeko.

Gipuzkoarrek, berriz, ez dute bat egin al daketa haizeok: "A, ez, guk ez, guk batuz propiyo eitten seittuko deu,".

SAREAN ARRANTZATUA

Oso auto arraroak dabilta Gesaltza-Añanan



Uteroan nola egin ezarketa... edo




Euskal Herria eta Katalunia independentziazatik %3 gertuago, Ibarretxe eta Mas elkartu ondoren

Geldiezina da prozesua: Juan Jose Ibarretxe eta Artur Masek lideraturik, Euskal Herria eta Katalunia beren etorkizuna erabakitzen doaz analista zentzudun guztien arabera. Adituek diotenez, gako nagusi batek eman dio sinesgarritasuna independentismo berri honi: bi liderrek euren ibilbide osoan zehar herriari galdeztzeko erakutsi duten jarrera ezin demokratikoa. "Boroako zentral termikoaren inguruko erreferenduma gakoa izan zen Ibarretxe benetako demokrata bat zela

ikusten hasteko", baieztatu du Luigi Zubiondo politologoak. "Eta ondorengo guztia, noski: AHT atzera bota zuen galdeketa, traba guztien gainetik egin zuen Estatutu Berriari buruzko erreferenduma...". Masen merituek ez dira txikiagoak EHUko irakasle honen ustez: "Pentsa, bizi dugun krisitzaurrearekin, Katalunian murrizketa basatiak egin ordez, komunismoaren alde egin zuen; justizia sozialari laguntzeko kobratu zituen obra publikoengatik %3ko komisioak", azaldu du, irrintzi bat bota aurretik.



Solasaldiaren ondoren 'enterprise' kontuez aritu ziren Ibarretxe eta Mas.



HAUTATZEN DAKITENENTZAT

ARGIA komunitateko kide bazara
eta eskatua baduzu, etxean
jasoko duzu.

Gainerakoentzat,

9,95€

Eskura ezazu!

BERDINTASUNA

NIRE BAITAN ERE HASTEN DA



“Semeari erakutsi diot
Ez beti dela ez”

Gero eta gehiago gara gure eguneroko ekintza eta jarreraren bidez gizarte berdinzale baten alde egiten dugunak.

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

